



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VII. legegintzaldia

Iruña, 2007ko azaroaren 13a

27. ZK.

A U R K I B I D E A

D SAILA:

Hitzarmenak:

—Estatuaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko Hitzarmen Ekonomikoaren aldaketa (3. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Jabeldura, abeltzaintza sektorearen krisiaren aurkako plan gisa Nafarroako Gobernuak garatzen duen politika orokorrari buruzkoa, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak egina (12. or.).
- Jabeldura, Gobernuak eremu mistoko herritarrei behar bezala erantzun eta haien eskubideak bermatzeko zer hizkuntza-politika eginen duen jakitekoa, Nafarroa Bai parlamentu-taldeak egina (13. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da 0 eta 3 urte arteko haurrentzako zentroak sortitzan Nafarroako ospitale publikoetan. Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu du (16. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da arte garaikidea sustatu eta garatzeko plan orokor bat presta dezan. Plan horretan, xede horretarako diren jardueren multzo osoa jasoko da. Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu du (17. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da Donejakue Bideari buruzko kultur programaziorako hiru urteko plan bat egin dezan. Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu du (18. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da berritutako osasun-txartel indibidualetan adieraz daitezkeen esleituriko mediku, erizain eta gizarte-langilearen izenak. Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak aurkeztu du (19. or.).

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, errepideetan eraldaketak egiteko proiektuetan Herri Lan, Garraio eta Komunikazio Departamentuak erabiltzen duen administrazio prozedurari buruzkoa, José M.^a Vázquez Royo jaunak egina (20. or.).

- Galdera, Gizarte Gaietako Departamentuak immigrazioaren arloan dauzkan eskumenei buruzkoa, Ioseba Eceolaza Latorre jaunak egin (20. or.).
- Galdera, zilbor-hesteko odolaren biltegitratzea Bartzelonako enpresa baten esku uzteko arrazoiei buruzkoa, kontuan hartuz Transfusioen Zentroak behar adinako ekipamendua duela, Asun Fernández de Garaialde y Lazkano andreak egin (21. or.).
- Galdera, epe ertain eta luzean osasun gastua hobetzeko eta arrazoizkoagoa egiteko hartu diren edo hartuko diren neurriei buruzkoa, Asun Fernández de Garaialde y Lazkano andreak egin (22. or.).
- Galdera, Mendabiako industrialdearen energia hornidurari buruzkoa, María Chivite Navascués andreak egin (22. or.).
- Galdera, 2004-05, 2005-06, 2006-07 eta 2007-08 ikasturteetan Iruñean eta Iruñerrian izandako haur hezkuntzako aurrematrikulazioaren eta matrikulazioaren datuei buruzkoa, María Luisa Mangado Cortes andreak egin (23. or.).

G SAILA:**Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- 38/07 Ebazpena, urriaren 17koa, Nafarroako Foru Komunitateko arartekoak emana, erakunde horretan dauden datu pertsonalen fitxategiak arautzen dituen ekainaren 18ko 31/04 Ebazpena aldatzen duena (24. or.).
- Nafarroako Foru Komunitateko arartekoaren azaroaren 8ko 42/07 Ebazpena, Nafarroako arartekoaren erakundearen zerbitzu karta onesten duena (28. or.).
- 44/07 Ebazpena, azaroaren 9koa, Nafarroako Foru Komunitateko arartekoarena, Pilar Álvarez Asiáin andrea erakundeko idazkari nagusi izendatzen duena (35. or.).

D saila:
HITZARMENAK

Estatuaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko Hitzarmen Ekonomikoaren aldaketa.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko azaroaren 12an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako foru eraentza berrezarri eta hobetzeari buruzko 1982ko abuztuaren 10eko Lege Organikoaren 45.4 artikulua ezarritakoarekin bat, Nafarroako Gobernuak, 2007ko azaroaren 5ean hartutako erabakiaren bidez, Estatuaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko Hitzarmen Ekonomikoaren aldaketa Parlamentura bidali du.

Hori dela-eta, Legebiltzarreko Erregelamenduko 164. eta 170. artikuluek ezarritakoaren arabera, hona ERABAKIA:

1.- Estatuaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko Hitzarmen Ekonomikoaren aldaketa Legebiltzarreko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

2.- Estatuaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko Hitzarmen Ekonomikoaren aldaketaren eztabaida eta bozketa Legebiltzarreko Erregelamenduko 170. artikulua ezarritakoaren arabera egin dadin xedatzea.

Iruñean, 2007ko azaroaren 12an

Jarduneko Lehendakaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

Estatuaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko Hitzarmen Ekonomikoaren aldaketak

5. artikulua. Koordinazioa.

1. Estatu eta Nafarroako Foru Komunitatea elkarrekin arituko dira beren zerga araubideak aplikatzeko zereginean eta, horretarako, elkarri emanen dizkiote behar diren argibideak eta laguntzak.

2. Estatuak behar diren baliabideak zehaztuko ditu, Nafarroako Foru Komunitateak bidea izan dezan Hitzarmen Ekonomiko honen aplikazioan eragina duten Nazioarteko Hitzarmenetan elkarlanean aritzeko.

3. Estatuak eta Foru Komunitateak informazioa trukatzeko prozedurak finkatuko dituzte, horrela Estatuaren nazioarteko itun eta hitzarmenak eta, bereziki, Europar Batasunak lankidetzan administratiboaren eta elkar laguntzearen arloan emandako araudia egoki betetzen direla bermatzeko.

19. artikulua. Zergaren ordainarazpena.

1. Nafarroako Foru Komunitateari dagokio Sozietateen gaineko Zerga honako subjektu pasibo hauei ordainaraztea:

a) Helbide fiskala Nafarroan izanik aurreko ekitaldiko eragiketen kopuru osoa zazpi milioi eurotik gorakoa izan ez dutenak.

b) Soil-soilik nafar lurraldean jarduten dutenak eta, gainera, aurreko ekitaldiko eragiketen kopuru osoa zazpi milioi eurotik gorakoa izan dutenak, edozein dela ere beren helbide fiskala.

2. Bi lurraldeetan jarduten duten subjektu pasiboek, baldin eta aurreko ekitaldiko eragiketen kopuru osoa zazpi milioi eurotik gorakoa izan badute, bi Administrazioetan batera ordainduko dituzte zergak, edozein dela ere beren helbide fiskala. Zerga-ordainketa egingen da ekitaldiaren barnean lurralde bakoitzean egindako eragiketen

kopuruaren arabera, eta hori 20. eta 21. artikuluetan ezartzen diren lotura puntuei jarraikiz zehaztuko da.

3. Aurreko 1. eta 2. idatz-zatietan ezarritakoaren ondorioetarako, jardueraren hasiera kasuan, zazpi milioi euroko zifraren zenbaketa egin ahal izateko, hasierako ekitaldian egindako eragiketen kopurua hartuko da kontuan.

Aurreko lerroaldean aipatzen diren eragiketen kopurua eta non egin diren ezagutu arte, horrelakotzat hartuko dira, ondorio guztietarako, subjektu pasiboari hala iruditzen zaizkionak jardueraren hasiera-ekitaldian zehar egin asmo dituen eragiketen arabera.

4. Ekitaldiak urtebete baino gutxiago irauten badu, zazpi milioi euroko zifraren zenbaketa egin ahal izateko, eragiketarako urtebetera zabalduko dira.

5. Eragiketen kopurutzat kontraprestazioen zenbateko osoa joko da, salbu eta Balio Erantsiaren gaineko Zerga eta, hala bada, baliokidetasun errekarua, subjektu pasiboak bere jardueran egindako ondasun entregetan eta zerbitzu prestazioetan lortua.

33. artikulua. Zergaren ordainarazpena.

1. Nafarroako Foru Komunitateari dagokio Balio Erantsiaren gaineko Zerga honako subjektu pasibo hauei ordainaraztea:

a) Helbide fiskala Nafarroan izanik aurreko urteko eragiketen kopuru osoa zazpi milioi eurotik gorakoa izan ez dutenak.

b) Soil-soilik nafar lurraldean jarduten dutenak eta, gainera, aurreko urteko eragiketen kopuru osoa zazpi milioi eurotik gorakoa izan dutenak, edozein dela ere beren helbide fiskala.

2. Bi lurraldeetan jarduten duten subjektu pasiboak, baldin eta aurreko urteko eragiketen kopuru osoa zazpi milioi eurotik gorakoa izan badute, bi Administrazioetan batera ordainduko dituzte zergak, edozein dela ere beren helbide fiskala. Zerga-ordainketa egiten da urte naturalaren barnean lurralde bakoitzean egindako eragiketen kopuruaren arabera eta hori ondoko idatz-zatietan ezartzen diren lotura puntuei jarraikiz zehaztuko da.

3. Eragiketen kopurutzat kontraprestazioen zenbateko osoa joko da, salbu eta Balio Erantsiaren gaineko Zerga eta, hala bada, baliokidetasun errekarua, subjektu pasiboak bere enpresa eta lanbide jarduera guztietan egindako ondasun entregetan eta zerbitzu prestazioetan lortua.

4. Aurreko 1. eta 2. idatz-zatietan ezarritakoaren ondorioetarako, jardueraren hasiera kasuan, zazpi

milioi euroko zifraren zenbaketa egin ahal izateko, lehenengo urte naturalean egindako eragiketen kopurua hartuko da kontuan.

Jardueraren lehenengo urtea urte naturalarekin bat ez badator, aurreko zifraren zenbaketa egin ahal izateko, egindako eragiketarako urtebetera zabalduko dira.

Urte horretako zerga-ordainketa behin-behinekoz egiten da, hasierako urtean aurreikusten den eragiketa kopuruaren arabera, nahiz eta gero, bidezkoa denean, erregularizatu egiten den.

5. Subjektu pasibo batek lurralde batean diharduela ulertuko da, baldin eta, arau hauetan ezartzen diren lotura puntuen arabera, bertan egiten badira ondasun entregak edo zerbitzu prestazioak.

6. Nafarroan egindakotzat hartuko dira Zergari lotutako eragiketarako, honako arau hauen arabera:

A) Ondasun entregak:

1. Ondasun higigarri korporal fabrikatuen edo eraldatuen entregak, entrega hori egiten duenak berak fabrikatu edo eraldatuak, subjektu pasiboaren fabrikazio edo eraldaketa zentroak nafar lurraldean daudenean.

Subjektu pasibo berak fabrikazio edo eraldaketa zentroak Nafarroan eta lurralde komunean dauzkanean, baldin eta entregatutako ondasunen fabrikazio edo eraldaketaren azken prozesua Nafarroan egiten bada.

2. Industriako elementuak entregatzeaz gain horiek Nafarroatik kanpo instalatzen badira, Nafarroan eginak direla ulertuko da, baldin eta prestaketa eta fabrikazio lanak lurralde horretan egiten badira eta instalazio edo muntaketaren kostua kontraprestazio osoaren 100eko 15etik gorakoa ez bada.

Horrekin loturik, ez dira Nafarroan egintzat joko lurralde horretan instalatzen diren industriako elementuen entregak, baldin eta elementu horien prestaketa eta fabrikazioa lurralde komunean egiten bada eta instalazio edo muntaketaren kostua kontraprestazio osoaren 100eko 15etik gorakoa ez bada.

3. Energia elektrikoaren ekoizleek egindako entregak, energia horren zentro sortzaileak nafar lurraldean daudenean.

4. Ondasun higigarri korporalen gainerako entregak, eskuratzailari entregatu beharrekoak nafar lurraldetik irteten direnean. Ondasunak eskuratzailari eman ahal izateko garraiatu egin behar direnean, bidalketa edo garraioa hasten denean

ondasunak non dauden, entregak han egin direla ulertuko da.

5. Ondasun higiezinaren entregak, ondasunak nafar lurraldean daudenean.

B) Zerbitzu prestazioak:

1. Zerbitzu prestazioak Nafarroan egintzat joko dira lurralde horretatik abiatuta egiten direnean.

2. Aurreko idatz-zatian xedatutakoa gorabehera, ondasun higiezinekin zuzenean lotutako prestazioak ondasun horiek kokatuta dauden lurraldean egin direla ulertuko da.

3. Horretaz gain, aurreko idatz-zatietan xedatutakoan ez dira sartzen aseguru eta kapitalizazio eragiketak, zeinei dagokienez aplikatuko baitira Hitzarmen honetako 37. artikuluan bildutako arauak.

C) Aurreko A) eta B) arauetan xedatutakoa gorabehera, Estatuko Administrazioaren esku geldituko da zerga ordainaraztea, subjektu pasiboaren helbide fiskala lurralde komunean dagoenean, eta Nafarroako Foru Komunitatearen esku, helbide fiskala lurralde honetan dagoenean, honako eragiketara hauetan:

1. Nekazaritza, oihan, abeltzaintza edo arrantzako ustiatzaileek eta arrantza-ontzien armadorek egindako entregak, alegia, beren landa, ustiapen edo harrapaketatik zuzenean heldu diren eta eraldaketa prozesurik jasan ez duten produktu naturalen entregak.

2. Garraio zerbitzuak, baita etxe aldaketa egitekoak, atoian eramatekoak eta garabiarenak ere.

3. Garraiobideen errentamenduak.

7. Batasunaren barreneko eskuratzeei dagokien zergaren ordainarazpenari dagokionez, arau hauek aplikatuko dira:

a) Nafarroaren esku geldituko da Batasunaren barreneko eskuratzeei dagokien Zerga ordainaraztea, eskuratzaileak zerga soil-soilik Nafarroako Foru Komunitateari ordaintzen dioten subjektu pasiboak direnean.

b) Zerga bi Administrazioei batera ordaintzen dioten subjektu pasiboek egindako Batasun barreneko eskuratzeen ondoriozko Zerga ordainaraztea administrazio baten edo bestearen esku geldituko da, hurrengo artikuluko 1. arauan xedatutakoa aplikatetik ateratzen den proportzio berean.

c) Aurreko a) eta b) lerroaldeetan ezarritako irizpideak aplikatuko dira, halaber, Batasunaren barrenean egiten diren ondasun garraioetarako, horien osagarri diren zerbitzuetarako eta aurreko

horietan izaten diren bitartekaritza zerbitzuetarako, baldin eta hartzaileak Espainian egotzitako identifikazio zenbaki bat jakinarazten badio zerbitzuemaileari, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren ondorioetarako.

d) Partikularrek edo Balio Erantsiaren gaineko Zergari lotu gabeko edo Zerga horretatik salbuetsitako eragiketetan diharduten pertsona edo entitateek Batasunaren barrenean eskuratzen dituzten garraiobide berriengatik zergaren ordainarazpena, garraiobidea non matrikulatzen den behin betiko (lurralde komunean edo Nafarroan), hango Administrazioaren esku geldituko da.

8. Aurreko 7. idatz-zatian xedatutakoa gorabehera, Estatuko Administrazioaren esku geldituko da zerga ordainaraztea, subjektu pasiboaren helbide fiskala lurralde komunean dagoenean, eta Nafarroako Foru Komunitatearen esku, helbide fiskala lurralde honetan dagoenean, honako eragiketara hauetan:

a) Batasunaren barreneko ondasun eskuratzeak, zergari lotuak hala aukeratzen delako edo Zergaren araudian ezarritako gehieneko kopurua gainditzen delako, Zergaren kenketa erabateko edo partzialerako eskubiderik sortzen ez duten eragiketetan soilik diharduten subjektu pasiboek eginak, edo enpresaburu edo profesional gisa jarduten ez duten pertsona juridikoek eginak.

b) Araubide erraztuan, nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzako araubide berezian eta baliokidetasun errekarquaren araubidean dauden ondasunen Batasun barreneko eskuratzeak.

9. Ondasun entregengatik eta zerbitzu prestazioengatik, hau da, egoitza enpresaburu edo profesionalentzako zergaren aplikazio eremuan ez duten pertsona edo entitateek egindakoengatik, aipatu enpresaburu edo profesionalak hartzen badira emateen edo prestazioen subjektu pasibotzat, aurreko 7. idatz-zatiko a) eta b) arauak aplikatetik ateratzen denaren arabera ordainduko da zerga.

10. Egoitza Espainian ez duten enpresaburu edo profesionalak egindako eragiketei dagokien zergaren aplikazioan, aurreko idatz-zatian aipatutako gorabehera gertatzen ez denean, Estatuko Administrazioaren esku geldituko da zergaren ordainarazpena eta bidezko diren itzulketak egitea.

11. Subjektu pasiboek jasandako edo ordaindutako Balio Erantsiaren gaineko Zergagatik egin behar diren kenketek, ordainarazpena edozein Administrazioaren esku badago ere, bi Administrazioen aurrean izanen dute eragina, Hitzarmen honetan xedatutakoarekin bat.

12. Artikulu honetan aurreikusitako eragiketak egiten ez dituzten subjektu pasiboek Foru Komunitatean ordainduko dute zerga, helbide fiskala Nafarroan dutenean. Bereziki, atal honetan sartuko dira enpresa edo lanbide jarduerari hasiera eman ondoren ondasun entregak edo zerbitzu prestazioak egiten hasi ez diren subjektu pasiboak.

34. artikulua. Zergaren kudeaketa eta ikuskapena.

Zergaren kudeaketari dagokionez, zerga bi Administrazioei ordaintzeko kasuetan, honako arau hauek aplikatuko dira:

1. Zergaren likidazioen emaitza Estatuko eta Nafarroako Administrazioei egotziko zaie, kontra-prestazioen kopuruaren proportzioan, horri kenduta Balio Erantsiaren gaineko Zerga eta, halakorik bada, baliokidetasun erreargua, karga jasandako ondasun entregai eta zerbitzu prestazioei dagokienera, bai eta, halaber, kenketarako eskubidea sortzen duten eta urte natural bakoitzean dagozkien lurraldeetan egindakotzat hartzen diren salbuetsitakoak ere.

2. Urte natural bakoitzean behin-behinekoz aplikatzeko proportzioak aurreko urteko eragiketen arabera zehazten diren haiezek izanen dira.

Jardueraren lehenbiziko urte naturaleko likidazio aldietan behin-behinekoz aplikatzekoa den proportzioa subjektu pasiboak berak finkatuko du, lurralde bakoitzean egin gogo dituen eragiketen arabera, deusetan ukatu gabe dagozkion azken erregularizazioa.

Aurreko bi lerroaldeetan ezarritakoa gorabehera, aurrekoa ez bezalako behin-behineko proportzioa aplikatzen ahalko da, Hitzarmen Ekonomiko honetako 67. artikuluan ezarritako Koordinazio Batzordeari jakinarazi eta gero, honako kasu hauetan:

a) Aktiboen bat-egitea, zatiketa eta ekarpena eta baloreen trukea.

b) Jarduera hasi, utzi, handitu edo murriztea lurralde batean edo bestean, edo aurreko lerroaldeetan zehaztutako irizpidearen arabera kalkulaturako proportzioaren aldaketa garrantzitsua.

Nolanahi ere, aldaketa garrantzitsua dela esan da portzentajezko 15 puntu edo gehiagoko aldaketa denean, edozein lurraldetan aplikatzen ahal den proportzioan.

3. Urte natural bakoitzari dagokion Zergaren azken aitortpen-likidazioan, subjektu pasiboak behin betiko proportzioak kalkulatu dituzte, aldi horretan egindako eragiketen arabera, eta aurreko likidazio-aldietan Administrazioetako bakoitzarekin

egindako aitortpenen behar den erregularizazioa egingen du.

4. Zerga bi Administrazioei ordaindu behar dieten subjektu pasiboek dagokien Ogasun Ordezkaritzan eta Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioan aurkeztuko dituzte, epeen barranean eta erregelamenduko betebeharrak betez, indarra duten xedapenetan eskatzen diren agiriak eta, hala behar bada, bidezko diren aitortpen-likidazioak, zeinetan paratuko baitira, betiere, behin-behinekoz edo behin betikoz aplikatu beharreko proportzioak eta bi Administrazioen aurrean ateratzen diren kuotak edo itzulketak.

5. Likidazio aldi bakoitzean sortutako zerga-kuoten zenbatekoa denbora berari dagokion kuota kengarrien kopurua baino handiagoa bada, subjektu pasiboek Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari eta Ogasun Ordezkaritzari ordaindu beharko dizkiete ateratzen diren kuotak, bakoitzari dagokion proportzioan.

6. Subjektu pasiboek likidazio aldi bakoitzean sortutako kenketak egiterik izan ez badute kenkariaren kopurua sortutako kuotena baino handiagoa izateagatik, beren aldeko saldoa itzul dakien eskatzeko eskubidea izanen dute, bidezkoa den kasuetan, Zergaren araudiaren arabera.

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta Estatukoaren esku geldituko da bidezko diren itzulketak egitea, bakoitzari dagokion proportzioan.

7. Ikuskapena honako irizpide hauei jarraikiz egingen da:

a) Zerga soil-soilik Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari edo, bestela, Estatukoari ordaindu behar dioten subjektu pasiboaren ikuskapena, aipatu Administrazioetako bakoitzaren tributu-ikuskatzailetzaren esku geldituko da.

b) Zerga-ordainketa lurralde komunean eta nafarrean egindako eragiketen kopuruaren proportzioan egin behar duten subjektuen ikuskapena honako arau hauen arabera egingen da:

Lehenbizikoa. Subjektu pasiboek helbide fiskala lurralde komunean badute, Estatuko Administrazio organoek egingen dute egiaztapena eta ikerketa, eta subjektu pasiboaren tributu-egoera erregularizatuko dute, bi Administrazio eskudunei dagokien tributazio proportzioa sartuz.

Bigarrena. Subjektu pasiboek helbide fiskala lurralde nafarrean badute, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazio organo eskudunek egingen dute egiaztapena eta ikerketa, deusetan ukatu gabe Estatuko Administrazioaren lankidetzat, eta

eragina izanen dute eskudun diren Administrazioetan, barne hartuz haietako bakoitzari dagokion tributazioko proportzioa.

Subjektu pasiboak aurreko urtean araubide komuneko lurraldean egiten badu bere eragiketa guztien 100eko 75a edo gehiago, lotura puntuen arabera, Estatuko Administrazioa izanen da eskuduna, Foru Komunitateko Administrazioaren lankidetzak ukatu gabe.

Hirugarrena. Ikuskapenak Administrazio eskudunaren araudiaren arabera egiten dira, aurreko arauetan ezarritakoarekin bat.

Baldin eta jarduketa horien ondorioz ordaindu beharreko zorra edo itzuli beharreko kopurua, bi Administrazioei dagokiena, ateratzen bada, kobrantza edo ordainketa jardun duen Administrazioaren esku geldituko da, deusetan ukatu gabe haien artean bidezko diren konpentsazioak. Administrazio eskudunak bere jarduketan berri emanen dio Administrazio ukituari. Horretarako prozedura bat ezarriko da, egiaztapen eta ikerketetatik ateratzen den zorra dagokion Administrazioak jaso dezan.

Laugarrena. Aurreko arauetan ezarritakoak ez ditu alde batera uzten Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari egiaztapen eta ikerketa arloan bere lurraldean dagozkion ahalmenak, eta haren jarduketek ezin izanen dute ondorio ekonomikorik izan zergapekoen aurrean, Administrazio eskudunetako organoen jarduketan ondorioz egindako behin betiko likidazioei dagokienez.

Bosgarrena. Administrazio eskudunak egiaztapenetan finkatzen dituen proportzioek eragina izanen dute subjektu pasiboaren aurrean, likidatutako obligazioei dagokienez, deusetan ukatu gabe bi Administrazioen artean egiaztapen horien ondoren behin betikoz erabakitzen direnak.

8. Entitate-taldeko araubide bereziari lotutako entitateek 1. atalean ageri diren arauak aplikatuz ordainduko dute zerga, espezialitate hauek zehaztuta:

Lehenbizikoa. Entitate-taldetik kanpo geldituko dira mendeko entitateak, baldin eta horien ikuskapena egitea, aurreko 7. arauan ageri diren arauak jarraikiz, entitate menderatzaileari ez dagokion foru administrazio edo administrazio komun bateko organoen esku badago.

Bigarrena. Entitate-taldea osatzen duten entitateek, Hitzarmen honetan aipatzen diren arau orokorre jarraikiz, banakako tributazioaren araubiderako ezarritako aitorpena aurkeztu beharko dute, bertan bilduz zerga erregulatzen duten arauak banakakoari aplikatuta ateratzen diren zenbateko-

ak, entitate-taldeko araubide bereziari dagozkionak barne, hala egin behar denean.

Taldeko entitate bakoitzak banaka kalkulatu du Administrazio bakoitzari egozten ahal zaion aitorpenaren emaitza, 1. atal honetan ezarritako gainerako arauak aplikatuta.

Hirugarrena. Entitate-taldearen aitorpen-likidazio erantsietan kontatu beharreko zenbatekoa aurreko arauari jarraikiz kalkulatu emaitzak batuta ateratzen dena izanen da (Nafarroako Foru Komunitateari edo Estatuko Administrazioari dagozkionak), eta ezin izanen dira erantsi zerga arloko administrazio desberdinei dagozkien kopururak.

Laugarrena. Taldea osatzen duten entitateek zein lurraldean egiten dituzten jarduketak, lurralde horretako zerga administrazioen aurrean bete beharko dira entitate menderatzaileen berriazko betebeharrak.

Bosgarrena. Entitate-taldearen araubide bereziak ez ditu inolaz ere aldatuko Hitzarmen honetan aurreikusitako arauak eta, bereziki, lurralde bakoitzeko eragiketen kopurua zehazteko aplikatu beharrekoak.

9. Batasunaren barrenean egiten diren entregari eta eskuratzeen aitorpen laburbiltzaileak eta hirugarren pertsonekin egindako eragiketenak aurkezteko tokia subjektu pasiboari buruzko egiaztapena eta ikerketa egiteko eskumena duen zerga administrazioa izanen da.

35. artikulua. Zerga berezien ordainarazpena.

1. Fabrikazioaren gaineko Zerga Berezien ordainarazpena Foru Komunitatearen esku geldituko da baldin eta zergak Nafarroako lurraldean sorrarazten badira.

Fabrikazioaren gaineko Zerga Berezien itzulketek dagokienez, itzultzeko eskatzen diren kuotak zein administrazioan ordaindu ziren, administrazio haren itzuliko ditu. Dena dela, kuotak zein administrazioari ordaindu zitzaizkion jakiterik ez badago, itzulketaren eskubidea zein lurraldean sortu den, hango administrazioak itzuliko ditu.

Nafarroan kokaturik dauden establezimenduen baimenak ematea eta haiek kontrolatzea Foru Komunitatearen esku geldituko da. Dena dela, gordailu fiskalak baimentzeko, aurretik Estatuko Administrazioari jakinarazi beharko zaio.

2. Nafarroako Foru Komunitateak zenbait garraio bideren gaineko Zerga Berezia eskatuko du garraio bide horien behin betiko matrikulazioa Nafarroako lurraldean egiten denean.

Matrikulazioa arlo horren gaineko indarreko araudian ezarritako irizpideei jarraikiz egingen da. Zehazki, pertsona fisikoek helbide fiskala duten probintzian matrikulatuko dute garraibidea.

Zerga honetako kuotak zein administraziotan sartu ziren, harexek itzuliko ditu.

Artikulu honetako 4. atalean adierazitakoa gorabehera, Foru Komunitateak ahalmena du estatuak ezarritako karga tasak igotzeko, %15 gehienez.

3. Nafarroako Foru Komunitateak ikatzaren gaineko Zerga Berezia eskatuko du horren sorrarazpena Nafarroan gertatu bada.

Kontsumoa edo autokontsumoa abian hasten den unean hasiko da sorrarazten.

Kontsumoa abian hasi dela ulertuko da ikatza ekoitzi, erauzi, inportatu edo Europar Batasunean erosi ondoren, lehendabiziko aldiz saldu edo entregatzen denean.

Lehenbiziko salmenta edo entregatzat hartuko dira, orobat, ikatza birsaltzen jarduten duten enpresaburuek egiten dituzten hurrengo entregak, ikatza birsaltzeagatik dagokien salbuespena aplikatu bazaie erosketan.

Aurreko lerroaldean aipatutako enpresaburuek, Europar Batasunaren barreneko erosleek, inportatzaileek, erauzleek edo ekoizleek egiten duten ikatzaren erabilera edo kontsumoa autokontsumotzat hartuko da.

4. Nafarroako Foru Komunitateari dagozkion Zerga Bereziak ordainarazteko orduan, unean-unean estatuko lurraldean indarra duten oinarritzko printzipio eta funtsezko eta formazko arau berberak erabiliko dira. Halere, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak dirusarrera eta aitorten ereduak onetsi ahalko ditu –gutxienez ere, lurralde komuneko ereduak datu berberak jaso beharko dituzte– eta likidazioaldi bakoitzeko dirusarrerak egiteko epeak ezarri ahalko ditu –ez dira Estatuko Administrazioak ezarritakoez oso bestelakoak izanen–.

36. artikulua. Arau aplikagarriak eta Zergaren ordainarazpena.

1. Ondoko kasuetan, Zenbait Hidrokarburoren Txikizkako Salmenten gaineko Zergaren ordainarazpena Nafarroako Foru Komunitatearen esku izanen da:

a) Zergaren eremu objektiboaren barrenean dauden produktuen salmenta eta entregak Nafarroako lurraldean kokaturik dauden txikizkako saltokietan egiten badira, azkeneko kontsumitzaileei

egiten zaizkien hornidurak izan ezik, produktu horiek jaso eta kontsumitzeko behar diren instalazioak lurralde horretatik kanpora baldin badituzte. Zergaren ordainarazpena Nafarroako Foru Komunitatearen esku geldituko da, orobat, lurralde komunetik egindako hornidurak izan arren, haiek jaso eta kontsumitzeko behar diren instalazioak Nafarroan dituzten azkeneko kontsumitzaileentzat egiten baldin badira.

b) Zergaren eremu objektiboan dauden produktuen Europar Batasunaren barreneko inportazio eta erosketak, inportatzaileak edo erosleak zuzenean kontsumitzeko badira Nafarroan kokaturik dagoen norberaren kontsumorako establezimendu batean.

2. Zenbait Hidrokarburoren Txikizkako Salmenten gaineko Zerga ordainarazteko orduan, unean-unean estatuko lurraldean indarra duten funtsezko eta formazko arau berberak erabiliko dira.

Aurrekoa gorabehera, Nafarroako Foru Komunitateak ahalmena izanen du karga tasak ezartzeko, unean-unean lurralde komunean indarra duten muga eta baldintzak urratu gabe.

Halaber, Nafarroako Foru Komunitateak dirusarrera eta aitorten ereduak onetsi ahalko ditu –gutxienez ere, lurralde komuneko ereduak datu berberak jaso beharko dituzte– eta likidazioaldi bakoitzeko dirusarrerak egiteko epeak ezarri ahalko ditu –ez dira Estatuko Administrazioak ezarritakoez oso bestelakoak izanen–.

60. artikulua. Eguneratze indizea.

1. Aurreko 59. artikuluko 2. atalean aipatutako eguneratze indizea ateratzeko, eragiketa hau egingen da: hitzartutako tributuetan Ekarpen likidoari dagokion ekitaldian estatuak bildutako diru likidoa (alde batera utzita autonomia erkidegoei oso-osorik utzi dizkion tributuek), zati estatuak tributukontzeptu horiexen kontura bosturtekoaren oinarritzko urtean bildutako diru likidoa.

2. Aurreko 59. artikuluko 3. atalean aipatutako behin-behineko eguneratze indizea ateratzeko, eragiketa hau egingen da: hitzartutako tributuetan behin-behineko ekarpen likidoari dagokion ekitaldian estatuak bildu asmo duen dirua (alde batera utzita autonomia erkidegoei oso-osorik utzi dizkion tributuek), Estatuko Dirusarreraren Aurrekontuko I. eta II. Kapituluatan agertzen dena, zati estatuak tributukontzeptu horiexen kontura bosturtekoaren oinarritzko urtean biltzea aurreikusten duen dirua.

3. Artikulu honetako 1. atalean aipatzen den dirubilketa likidoa Estatuko Administrazioaren Kontu-hartzailtza Orokorrak ziurtatuko duena izanen da. Hortaz, horren ondorioetarako konputatu-

ko den dirua ziurtapenak aipatzen duen urtean lortutakoa izanen da, zein urtetan sortu den kontuan hartu gabe.

Lehenengo xedapen gehigarria.

2005. urtean, hots, 2005-2009 bosturtekoaren oinarrizko urtean, Nafarroari dagokion behin betiko Ekarpén likidoa onetsi da. Zenbateko hori Hitzarmen Ekonomiko honen I. eranskinean azaltzen da.

Ekarpén likido hori Nafarroako Foru Komunitateak 2005eko abenduaren 31n bere gain dituen eskumenen egoera errearen arabera finkatu da.

Bigarren xedapen gehigarria.

19. eta 33. artikuluetan aipatzen den eragiketen bolumena gutxienez bost urtean behin eguneratuko da, Hitzarmen Ekonomiko honen 67. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Bederatzigarren xedapen gehigarria.

Autonomiarako eta Menpekotasunaren Arretarako Sistema eratzeko xedapen finantzarioak, Hezkuntzari buruzko Lege Organikoa garatzekoak eta 2005eko irailaren 10ean egindako lehendakari-en Biltzarrean osasuna finantzatzeko erabakitakoak Nafarroan aplikatzeko moduari dagokionez, Koordinazio Batzordearen erabakietan ezarritakolari segituko zaio.

Hamargarren xedapen gehigarria.

Estatuko tributuoak lagatzeko araubidea berrituz gero edo Estatuko Aurrekontu Orokorrek nabarmen aldatuz gero autonomia erkidegoak edo toki entitateak finantzatzeko sistema berritu delako, Koordinazio Batzordea bilduko da bosturtekoaren oinarrizko urteko Ekarpén likidoa eta/edo hori eguneratzeko indizea aztertu eta, bidezkoa bada, aldatzeko. Ekarpén aldatuz gero, berrikuspenak aldaketa egiten den urtetik aurrera izanen ditu ondorioak.

Lehenbiziko xedapen iragankorra.

2005-2009 bosturterako, hitzarmen honen 57. artikuluan aipatzen den egozpen-indizea %1,60koa izanen da.

Hirugarren xedapen iragankorra.

2005-2009 bosturtekoan, Nafarroak Balio Erantsiaren gaineko Zergan biltzen duen diru-kopuru erreari ondoko hauek gehituko zaizkio:

a) Estatuak Balio Erantsiaren gaineko Zergaren kontura aduanetan bildutako diruaren %1,699.

b) Lurralde komunean Balio Erantsiaren gaineko Zergaren kontura bildutako diru errearen %0,314 (aduanetan bildutakoa kontuan hartu

gabe) zati 0,92638, edo bestela, Nafarroaren dirubilketa erreala zati 0,01385, kasuan kasukoa, Nafarroan biltzen den dirua Estatu osoko dirubilketaren (EAEkoa kenduta) %1,473 baino handiagoa den –lehenbiziko kasua– edo txikiagoa –bigarren kasua–.

Laugarren xedapen iragankorra.

1. 2005-2009 bosturtekoan, Nafarroak Alkoholaren eta Edari Eratorrien gaineko Zergan, Bitarteko Produktuen gaineko Zergan, Garagardoaren gaineko Zergan, Hidrokarburoen gaineko Zergan eta Tabakoaren gaineko Zergan biltzen duen diru-kopuru erreari ondoko hauek gehituko zaizkio:

a) 1. Estatuak Alkoholaren eta Edari Eratorrien gaineko Zergaren eta Bitarteko Produktuen gaineko Zergaren kontura aduanetan bildutako diruaren %1,60.

2. Kenketa-zeinuarekin, lurralde komunean Alkoholaren eta Edari Eratorrien gaineko Zergaren eta Bitarteko Produktuen gaineko Zergaren kontura bildutako diru errearen %4,30 (aduanetan bildutakoa kontuan hartu gabe) zati 0,941, edo bestela, Nafarroaren dirubilketa erreala zati 0,059, kasuan kasukoa, Nafarroan biltzen den dirua Estatu osoko dirubilketaren (aduanetakoa kenduta) %5,90 baino handiagoa den –lehenbiziko kasua– edo txikiagoa –bigarren kasua–.

b) Estatuak Garagardoaren gaineko Zergaren kontura aduanetan bildutako diruaren %1,60.

2. Kenketa-zeinuarekin, lurralde komunean Garagardoaren gaineko kontura bildutako diru errearen %0,50 (aduanetan bildutakoa kontuan hartu gabe) zati 0,979, edo bestela, Nafarroaren dirubilketa erreala zati 0,021, kasuan kasukoa, Nafarroan biltzen den dirua Estatu osoko dirubilketaren (aduanetakoa kenduta) %2,10 baino handiagoa den –lehenbiziko kasua– edo txikiagoa –bigarren kasua–.

c) Estatuak Hidrokarburoen gaineko Zergaren kontura aduanetan bildutako diruaren %2,00.

2. Kenketa-zeinuarekin, lurralde komunean Hidrokarburoen gaineko kontura bildutako diru errearen %0,71 (aduanetan bildutakoa kontuan hartu gabe) zati 0,9729, edo bestela, Nafarroaren dirubilketa erreala zati 0,0271, kasuan kasukoa, Nafarroan biltzen den dirua Estatu osoko dirubilketaren (aduanetakoa kenduta) %2,71 baino handiagoa den –lehenbiziko kasua– edo txikiagoa –bigarren kasua–.

d) Eragiketa honen ondoriozko diru-kopurua: lehenbizi, lurralde komunean Tabakoaren gaineko Zergaren kontura biltzen den diru erreari por-

tzentaje hau aplikatuko zaio: zerga horren aplikazio esparru osoko tabako eta tinbreen saltokiei emandako tabakoaren balioarekin konparatuta, Nafarroan kokaturik dauden tabako eta tinbreen saltokiei emandako tabakoaren balioari dagokion portzentajea, urtean urtekoa. Gero, kopuru horri ondoko hau kenduko zaio: zerga kontzeptu horren beraren kontura Nafarroan biltzen den diru errealarri aipatu berri den portzentajearen ehun bitarteko osagarria aplikatzearen ondoriozkoa.

Tabakoaren fabrikazioaren eta merkataritzaren egungo araubidea aldatuz gero, bi administrazioek, ados jarrita, doikuntza hori berrikusiko dute.

2. Hidrokarburoen gaineko Zergaren kontura eta Alkoholaren eta Edari Eratorrien gaineko, Bitarteko Produktuen gaineko eta Garagardoaren gaineko zerga berezien kontura Nafarroan biltzen den diru erreala baldin bada estatu osoan zerga horien kontura egiten den dirubilketa errealarri honen aurreko a) 2, b) 2 eta c) 2 paragrafoetako azkeneko esaldian jasotzen diren indizeak aplikatzearen ondoriozko emaitzaren %7 baino handiagoa, Hidrokarburoen gaineko Zergaren kasuan, edo %10 baino handiagoa, aipatutako beste zerga berezi horien kasuan, indize horiek zuzenduko dira, alde horiek gertatzen diren urteko egokitzenak egiteko.

Zuzenketa hori egiteko, aurreko paragrafoan ezarritako mugen gainetik edo azpitik dagoen bariazioaren ehunekoa lehen aipatutako a) 2, b) 2 eta c) 2 lerroaldeetako azkeneko esaldian ezarrita dauden indizeak aplikatuko zaie.

Bederatzigarren xedapen iragankorra.

Hitzarmen ekonomiko honetan finkatzen den eragiketen bolumen kopurua 2008ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietan edo likidazioaldietan aplikatuko da, kasuko zerga zein den.

Hamargarren xedapen iragankorra.

Kontseiluaren 2003ko urriaren 27ko 2003/96/EK Zuzentarauan ezarritakoari jarraikiz helburu profesionaletarako erregai gisa erabiltzen den gasolioari aplikatzen zaion tasa murriztu bereziaren ondorioz Hidrokarburoen gaineko Zergan egin behar diren itzulketa partzialak, itzulketaren onuradunaren helbide fiskala non dagoen, hango administrazioak eginen ditu. Zuzentaru horren bidez energia produktuen eta argindarraren ezarpenarako Europar Batasunaren araubidea berregituratu zen.

Hamaikagarren xedapen iragankorra.

Hidrokarburoen gaineko Zerga dela-eta nekazari eta abeltzainei egiten zaizkien itzulketa bereziak, nekazaritzaren sektorearen ekoizpenean erabiltzen diren ondasunen kostuaren igoera arintzeko neurrien ondoriozkoak, itzulketaren onuradunaren helbide fiskala zein den, hango Administrazioak eginen ditu.

Hamabigarren xedapen iragankorra.

Zerbitzu publikoak hobetzeko Estatuko Agentziari buruzko uztailaren 18ko 28/2006 Legearen bosgarren xedapen gehigarrian ezarritakoarekin bat, erakunde autonomoren bat edo entitate publiko enpresarialen bat agentzia bihurtzen bada, 10. artikuluan erakunde autonomoetarako eta entitate publiko enpresarialetarako aurreikusita dagoen eskumenen araubidea aplikatuko zaio.

Hamahirugarren xedapen iragankorra.

34. artikuluko 8. araua, hots, Balio Erantsiaren gaineko Zergan entitate multzoaren araubide berezia aplikatzeari buruzkoa, 2008ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin aplikatuko da.

I. ERANSKINA
NAFARROAKO FORU KOMUNITATEAREN EKARPENA
2005 OINARRIZKO URTEAN

KONTZEPTUA	(euroak, milakotan)
Estatuko aurrekontua. Gastuak	162.378.911,85
Foru Komunitateak bere gain hartzen dituen kargak	
- Ministerioak eta Lurraldeko entitateak (*)	65.258.368,17
Bere gain hartu gabeko kargak, guztira	97.120.543,68
Bere gain hartu gabeko kargei egotzitako indizea	
97.120.543,68 * 0,0160	1.553.928,70
Konpentsazioak eta deduzitu beharreko egokitzapenak:	
- Hitzartu gabeko tributuengatik	
3.633.520,50 * 0,0160	-58.136,33
- Tributuetatik kanporako beste dirusarrera batzuegatik	
7.132.909,84 * 0,0160	-114.126,56
- Aurrekontuetako defizitarengatik	
44.081.441,45 * 0,0160	-705.303,06
- Hitzartutako zuzeneko zergengatik	-122.871,05
	-1.000.437,00
EKARPEN LIKIDOA	553.491,70

(*) Zenbateko honen barrenean polizia arlorako kalkulatu diren 2.674.305 euro sartu dira.

E saila:

JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Jabeldura, abeltzaintza sektorearen krisiaren aurkako plan gisa Nafarroako Gobernuak garatzen duen politika orokorrari buruzkoa.

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko azaroaren 5ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkezturiko jabeldura, abeltzaintza sektorearen krisiaren aurkako plan gisa Nafarroako Gobernuak garatzen duen politika orokorrari buruzkoa.

2. Jabeldura hau Osoko Bilkuran izapidetzea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2007ko azaroaren 5ean

Jarduneko Lehendakaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

JABELDURAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak, idazki honen bidez, Legebiltzarreko Erregelamenduarekin bat, jabeldura aurkeztu dio Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariari, Osoko Bilkuran eztabaidatu dadin, abeltzaintza-sektorearen krisiaren aurkako plan gisa Nafarroako Gobernuak garaturiko politika orokorrari buruz.

Zioak:

Sanzberro andreak legegintzarako zituen asmoak azaltzeko Parlamentuan egin zuen agerrian iragarri zuen plan bat prestatuko zela abeltzaintza-sektorearen krisiari aurre egiteko; plan hori 2007ko urriaren 9an eman zen ezagutzera.

Adierazi beharra dago sektoreak plan honekiko interesa agertu duela, nahiz eta sektorearen zati batek plan hau adabakitzat jo duen eta ez dela nahikoa iritzi dion; parlamentu-talde hau, hein handi batean, bat dator iritzi horiekin, bereziki uste dugulako plan horrek ez duela zehaztasunik.

Ganaduzaleen sektoreak uneotan duen egoera, eta, beraz, baita lehen sektoreak duena ere, oso kezkarria gertatzen ari da, sektorearentzat ez ezik, gizarte osoarentzat ere.

Nafarroako gure gizartean nabarmena da abeltzaintzako ustiategiak eta hegaztien nahiz untxien hazkuntzaren sektorea krisian daudela eta askok ezin izanen dutela hori gainditu. Horren ondorioz, abeltzaintzako zenbait ustiatetik eta negoziok erreka joko dute, eta kontuan izan behar da horiek, familien mantenu-bide izateaz gain, gure gizartearen egitura sozial eta ekonomikoaren parte direla, eta landa-inguruen garapenerako oinarria.

Beraz, parlamentu-talde hau, Gobernu beazala, kezkatuta dago abeltzaintza-sektorearengatik eta uste du krisia dela-eta larrialdi plan bat prestatu behar dela. Hala ere, adierazi behar dugu Gobernuaren planeko zenbait alderdi ez direla berriak, lehen ere bazirelako; beste batzuk, berriz, interesgarriak eta beharrezkoak izan arren, erabat zehaztu gabe ageri dira eta ez dute finkatuta ez denborarik, ez formarik ezta aurrekonturik ere.

Horiek guztiak horrela, eta plan hori garrantzitsua dela uste dugunez, sektorearentzat ez ezik gizartearentzat ere, krisialdi honetan abeltzaintza-sektoreari bultzada eman behar zaiolako, jabeldura hau aurkeztu dugu:

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak jabeldura aurkeztu dio Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariari, abeltzaintza-sektorearen krisiaren aurkako plan gisa Nafarroako Gobernuak garaturiko politika orokorrari buruz, sektoreari aurkeztu dizkion egiturazko neurrien multzoa dela-eta konpromisoa adieraz dezan epe zehatzei eta aurrekontuetan horretarako jarriko diren diruei buruzko, eta, era berean, zehaztu dezan neurriok sektorean bere ustez izanen duten eragina.

Iruñean, 2007ko urriaren 26an

Eleduna: Roberto Jiménez Alli

Jabeldura, Gobernuak eremu mistoko herritarrei behar bezala erantzun eta haien eskubideak bermatzeko zer hizkuntza-politika eginen duen jakitekoa.

NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko azaroaren 5ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkezturiko jabeldura, Gobernuak eremu mistoko herritarrei behar bezala erantzun eta haien eskubideak bermatzeko zer hizkuntza-politika eginen duen jakitekoa.

2. Jabeldura hau Osoko Bilkuran izapidetzea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2007ko azaroaren 5ean

Jarduneko Lehendakaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

JABELDURAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako jabeldura aurkeztu dute, Osoko Bilkuran eztabaiatzeko.

2005eko irailaren 21ean Europako Kontseiluko Aritu Batzordeak gomendio batzuk eman zituen Nafarroako Gobernuaren euskararako hizkuntza politikaren gainean. Hori dena honako txosten honetan jaso du Europako Kontseiluak: Carta Europea de las Lenguas Regionales o Minoritarias. Aplicación de la Carta en España. Eta haren barnean honako bi atalok daude: "A. Informe del Comité de Expertos sobre la Carta" eta "B. Recomendación del Comité de Ministros del Consejo de Europa sobre la aplicación de la Carta"¹.

Aipatu txosten horrek bere B atalean, hau da, Europako Kontseiluko Ministro Batzordearen gomendioetan honela dio:

«El Comité de Ministros (...) recomienda que las autoridades españolas tomen en consideración todas las observaciones del Comité de Expertos y que, ante todo:

(...)

4. adopten un enfoque estructurado, con miras a fomentar el uso del vascuence (...) en los programas de radio y televisión en general en Navarra.

5. contemplen la posibilidad de aplicar una forma apropiada de la protección que brinda la Parte III a la lengua vasca en la zona mixta, tal como define la legislación de Navarra»²

En el informe resulta evidente la importancia que el Comité de Expertos ha dado a la situación en que los vascos hablan se encuentran en la zona mixta de Navarra. Dice así:

«(...) El Comité de Expertos considera que existe una cuestión importante en lo que respecta a la categoría de la lengua vasca en consonancia con la Carta en la zona mixta. Según las estadísticas de que dispone el Comité de Expertos, en esta zona 17.513 personas son bilingües (es decir, el 5,7 de toda la población de esta zona) y otras 40.555 tienen algunos conocimientos de vascuence (es decir, un 13,2 por ciento más de la población total de la zona). Las cifras relativas exclusivamente a la ciudad de Pamplona/Iruña, el principal centro urbano de toda Navarra, son las siguientes: en esta ciudad, 10.992 personas son bilingües (es decir, el 7 por ciento del número total de habitantes, que asciende a 166.279) y otras 13.890 personas (es decir, un 8 por ciento más de la población de la ciudad) tienen algunos conocimientos de vascuence. Estas cifras indican, al mismo tiempo, que Pamplona/Iruña tiene la concentración de vascoparlantes más elevada en una única ciudad de toda Navarra.

Otro dato más específico, pero muy importante, concierne la enseñanza. Según la información proporcionada por varias fuentes al Comité de Expertos, el 30 por ciento aproximadamente de los alumnos que viven en la zona mixta siguen el modelo D en la escuela (es decir, el 80 por ciento del programa escolar en vascuence, y el 20 por

(1) Council of Europe. ECRML (2005) 4. Txosten osoa ikusteko:

http://www.coe.int/t/e/legal_affairs/local_and_regional_democracy/regional_or_minority_languages/2_monitoring/2.4_Committee_of_Ministers%27_Recommendations/Spain_CM_Rec_esp.pdf

(2) Ibidem. (2005). 177. oro

ciento para la enseñanza del español y el inglés). Este porcentaje es más elevado que el porcentaje general de vascoparlantes, lo que significa que la enseñanza está desempeñando un papel importante en el fomento de la lengua vasca entre las generaciones más jóvenes. También, y no menos importante, esto pone de relieve que una parte importante de la población está muy motivada para preservar también la lengua en esta esfera.

La presencia de vascófonos en la zona mixta y, en particular, en Pamplona/lruña también debe considerarse teniendo en cuenta el contexto socioeconómico de Navarra. Como se ha señalado anteriormente el vascuence se ha hablado tradicionalmente en la zona mixta, en particular en Pamplona/lruña y sus alrededores. Algunos interlocutores informaron al Comité de Expertos, durante su visita 'en el lugar', que la zona norte de Navarra está experimentando un descenso demográfico en beneficio de Pamplona/lruña, el principal centro urbano y administrativo de toda la Comunidad Autónoma. Lo que es más importante, le informaron sobre la existencia de una movilidad tradicional de los vascoparlantes entre el norte de Navarra y Pamplona/lruña, que es el centro natural de la región. A este respecto, el Comité de Expertos recuerda que la lengua regional o minoritaria es una realidad viva, y que su marco de protección y promoción siempre debería considerarse en el contexto socioeconómico en el que ésta vive, y adaptarse/elaborarse en consecuencia (...).

En principio es posible que un Estado contratante considere preferible, por razones que quedan a su plena discreción, no hacer extensiva la protección que brindan las disposiciones de la Parte III de la Carta a una lengua determinada, o a un territorio determinado. Sin embargo, las razones por las que no se hace extensiva la protección ofrecida en la Parte III a una lengua o a un territorio determinados, como en el presente caso, deben seguir siendo compatibles con el espíritu, los objetivos y los principios generales de la Carta (...).

Por consiguiente, el Comité de Expertos alienta a las autoridades españolas a facilitar información más detallada sobre las características de la presencia del vascuence en la zona mixta (lugares donde se habla, grado de concentración de los vascoparlantes, porcentaje de estos últimos en relación con la población de los lugares en cues-

tión), y a reflexionar sobre la posible necesidad de brindar a la zona mixta una protección adecuada, de conformidad con lo establecido en la Parte III, sobre todo habida cuenta de las numerosas medidas que ya se han adoptado, especialmente en el ámbito de la enseñanza (...), correspondientes a algunas medidas típicas emprendidas en consonancia con lo establecido en la Parte III. Debería señalarse que esta cuestión es independiente de que se reconozca la cooficialidad de la lengua, lo que sólo es pertinente desde el punto de vista del sistema jurídico nacional.

En cualquier caso, la lengua vasca en la zona mixta ya está amparada por la Parte II de la Carta. A este respecto, el Comité de Expertos hace referencia a su evaluación del vascuence en la zona mixta de conformidad con lo dispuesto en la Parte II»³ (Letra azpimarratuta guk egina da).

Adituen Batzordeak emandako datuak, eremu mistoan bizi diren euskaldunen gainekoak nola D ereduan ikasten duten haurren gainekoak, zaharrak dira eta egungoek aise gainditu die. Ditugun azken datuei erreparatzen badiegu:

- 2006an Nafarroako Gobernuak berak eskatutako Estudio sociolingüístico en Pamplona y su comarca ikerketako datuen arabera, Iruñerrian euskaraz ongi dakitenak % 16,7 dira eta % 10,1 zertxobait dakitenak. 15-24 urte bitarteko gazteei soilik erreparatuta: euskaraz ongi dakitenak % 32,1 dira eta % 8 zertxobait dakitenak⁴.

- 2007an Euskaltzaindiak argitaratutako Recuperación del Euskera en Navarra liburuak ere berretsi egin du 1986ko zentsutik 2001ekoa bitartean, eremu mistoko belaunaldi gazteetan euskaren ezagutzak izan duen gorakada. Azken zentsuko datu ofizialetan oinarriturik, ikerketak hurrengo gizaldian euskaraz ongi dakitenen portzentajeak kalkulatu ditu udalerrika eta ondorioek erakusten dute guztietan hurrengo belaunaldietan euskaldunak berretu izanen direla⁵.

Beraz, Europako Kontseiluko Aditu Batzordearen txostenak nola Ministro Batzordearen gomen-dioek, Nafarroako egungo egoera soziolingüistikoak nola datu ofizialetan oinarriturik egin diren aurreikuspenek, denak adierazten du eremu mistoko herritar euskaldunek galdetzen dituzten zerbitzuei erantzuteko Nafarroako Gobernuak garatzen ari den hizkuntza politika gai funtsezkoa dela, are-

(3) Ibidem. (2005). 11. eta 12. or.

(4) Ikertalde (2006). Estudio sociolingüístico en Pamplona y su comarca. Ikerketa argitaratu gabea, 8-11. orr.

(5) Gros i Lladós, Miquel (2007). Recuperación del Euskera en Navarra. Jagon Salla. Silbo: Euskaltzaindia. .

ago jakinda egun eremu mistoan eremu euskaldunetan baino herritar euskaldun gehiago bizi dela. Herritarrek galdetzen dituzten zerbitzuak honako arlo hauei lotuak dirateke:

– Hedabideak euskaraz izateko.

– Administrazio zerbitzu orokorretan harrera euskaraz izateko, izan osasuna, izan herrizaingoa,...

– Nafarroako Gobernuaren informazio orokorra euskaraz jasotzeko: iragarkiak, biorrikoak, jakinarazpenak,...

Ez dugu atzendu behar 18/1986 Foru Legeak, abenduaren 15ekoak, Euskarari buruzkoak, hone-la ezarri zuela eremu mistoko erabilpenaren gainean bere 17. artikuluan:

«Herritar guztiek euskara nahiz gaztelania erabiltzeko eskubidea dute Administrazio Publikoetara zuzentzeko.

Eskubide honen erabilera bermatzeko, aipatu Administrazioek honako hau egin dezakete:

Urteroko lanpostuen eskaintza publikoan zein lanpostutarako izanen den nahitaezko euskaraz jakitea zehaztu.

Gainerako lanpostuetara iristeko deialdietan euskararen ezagupena merezimendutzat baloratu.»

Horregatik, premiazkoa da herritarrek lege aitortuta dituzten eskubideei babes eta bermea emanen dizkieten benetako neurriak hartzea eta zerbitzu publikoa euskaraz nahi duten herritarrak baztertuak izatea saihestea.

Hori horrela, Nafarroa Bai parlamentu-taldeak jabeldura aurkeztu nahi dio Nafarroako Gobernuari azal eta argi dezan zer hizkuntza politika egingen duen Administrazio Orokorreko zerbitzuetan euskaraz artatuak izatea galdetzen duten eremu mistoko herritarrei behar bezala erantzun eta haien eskubideak bermatzeko.

Iruñean, 2007ko urriaren 30ean

Eledunak: Patxi Zabaleta Zabaleta eta Maiorga Ramírez Erro

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da 0 eta 3 urte arteko haurrentzako zentroak sor ditzan Nafarroako ospitale publikoetan.

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko azaroaren 5ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkezturiko mozio hau: Nafarroako Gobernua premiatzen da 0 eta 3 urte arteko haurrentzako zentroak sor ditzan Nafarroako ospitale publikoetan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osasun Batzordean eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2007ko azaroaren 5ean

Jarduneko Lehendakaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

MOZIOAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, lana eta familia bateragarri izatea ahalbidetuko duten neurriak hartzeari buruzko ondoko mozioa aurkeztu du, Osasun Batzordean eztabaidatu eta onesteko.

Zioen azalpena:

Familia, bizitza pertsonala eta lana bateratzea gero eta zailagoa da, eta kontuan hartu behar dugu bateratze hori funtsezko ardatza dela emakumeen eta gizonen aukera berdintasuna eraikitzeko.

Emakumeek lan ordaindua izan eta esparru publikoan parte hartzeko prozesuarekin batera ez da gertatu gizonen esparru pribatuan parte hartzeko prozesurik. Ez dira sortu, bestetik, behar diren zainketa zerbitzuak.

Nafarroako familietan funtsezko aldaketa gertatu da emakumeak lan munduan hasi direnez geroztik, baina gaur egun ere babes publiko eskasarekin egin behar izaten diete aurre familiako kideen beharrei.

Baliabide publikoen urritasunaren kalterik handiena zuzenean pairatzen dutenak emakumeak

dira, gehien-gehienetan haiek hartzen baitute beren gain familiaren zama, eta horrek nabarmen mugatu eta atzeratzen du lan munduan sartzeko aukera. Hori guztia dela-eta, familien egoera hobetzea helburu duen politika ororen betebeharra da lana eta familia bateragarri egitea.

Zerbitzu publikoaren kalitatea handitzeko, gutxienez, langileen lan baldintzak hobetu behar dira. Giza faktorea funtsezko elementua da. Hala ere, bizitza pertsonala eta lanaren arteko oreka funtsezkoa da pertsonaren garapenean.

Beraz, beharrezkoa da familia eta gizartearen egituretan izandako aldaketak direla-eta sortzen ari diren arazo berri eta konplexuei soluzioak bilatzea. Zentzu horretan, ezinbestekoa da bateragarritasunerako politikak abian jartzea.

Ekimen honen xedea da babesa eskaintzea bateragarriak izan daitezen seme-alabak zaintzeaz arduratzea eta familia eta lan bizitza normalizatu izatea, aukera berdintasunean. Neurri honek handitu egingen du gizonen eta emakumeen arteko aukera berdintasuna lan merkatuan; izan ere, nahiz eta azken urteotan gizarte-aldaketa ugari izan diren, haur txikiak zaintzeko ardura oraindik ere emakumeek hartzen dute gehienetan, eta horrek beren lanbide-garapenean eragiten du zalantzarik gabe. Bestalde, neurri honek emakume askori ama izateko aukera emanen die; betiere, beren lanbide-karrera modu egokian gauzatzeko aukera galdu gabe.

Baina, gainera, neurri honekin herritar askoz gutxiagok egingen diote uko guraso izateari lana eta familia bateragarri egiteko zailtasunagatik; gizarteak, hala ere, konpontzeko du oraindik arazo hau, eta denok ere lan handia egin behar dugu arlo honetan.

Egia da osasun zentroek langile asko hartzen dutela egunero eta, txanda aldakorretan lan egiten dutenez, gauak, jai egunak eta asteburuak barne, haien zainketa zailagoa da lana eta familia bateragarri egitea.

Enpresa handiena den aldetik, Nafarroako Gobernuak eta administrazio publikoak, bere osotasunean, ezin dituzte langileengan eta beren bizi kalitatean eragin handiena duten eta langileak gehien kezkatzen dituzten gaiak alde batera utzi,

horien artean bizitza pertsonala, familia eta lana bateragarri egiteko zailtasuna.

Horrela, Reina Sofía Ospitaleko zerbitzu eta espezialitate guztietako langileek sinadurak bildu zituzten eskatzeko ospitalean bertan haurtzaindegi bat jar zezaten.

Horregatik, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak honako mozioa aur-

keztu du, Osasun Batzordean eztabaidatu eta bozka dadin:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernu premiatzen du 0tik 3 urtera bitarteko haurrentzako zentroak sor ditzan Nafarroako ospitale publikoetan.

Iruñean, 2007ko urriaren 26an

Eleduna: Roberto Jiménez Alli

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernu premiatzen da arte garaikidea sustatu eta garatzeko plan orokor bat presta dezan. Plan horretan, xede horretarako diren jardueren multzo osoa jasoko da.

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko azaroaren 5ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkezturiko mozio hau: Nafarroako Gobernu premiatzen da arte garaikidea sustatu eta garatzeko plan orokor bat presta dezan. Plan horretan, xede horretarako diren jardueren multzo osoa jasoko da.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2007ko azaroaren 5ean

Jarduneko Lehendakaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

MOZIOAREN TESTUA

Roberto Jiménez Alli, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldearen eledunak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 195. artikuluan eta hurrengoetan xedatuaren babesean, honako mozioa aurkeztu du, Legebiltzarraren Osoko Bilkuran eztabaida eta onets dadin, Nafarroako Gobernu premiatzeko arte garaikidea sustatu eta garatzeko plan orokor bat presta dezan.

Zioen azalpena:

Kultura eta Turismo kontseilariak legegintzaldi honetan Departamentuak izanen dituen ildo nagusiak ezagutzera emateko egin zuen agerraldian, bazen atal bat berariaz arte garaikideari eskainia, non arte garaikidea helburu zuten zenbait ekintza zerrendatzen baitziren, baina ez ziren argi gelditzen ez xedeak ezta epe laburreko zein ertaineko aurreikuspenak ere.

Nafarroako Museoen garai horri eskainitako leku eskasak, dauden ekimen publikoek –horietan garrantziatsuenak, Oteiza Fundazioaren Museoa–, berriki inauguratu den Huarte zentroak, aukeran izan diren beste ekimen publiko zein pribatuak eta Nafarroako aurrekontu orokorretan berariazko kontusaila duten ekintza solteen multzoak erakusten dutena da ekintzak izan badirela, baina, era berean, ez dagoela berariazko politikarik arlo honetan panorama argituko duenik, helburuak ezarriko dituenik eta legegintzaldian zehar abian jarri beharreko ekintza nagusiak adieraziko dituenik. Hori guztia dela eta, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak ondoko mozioa aurkeztu du:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernu premiatzen du arte garaikidea sustatu eta garatzeko plan orokor bat presta dezan lau hilabete epean, non xede horretarako diren jardueren multzo osoa jasoko baita.

2. Plan orokor horretan, gutxienez ere, ondokoak jaso beharko dira:

- Lortu nahi diren funtsezko helburuak.

- Egun dauden bitartekoetatik, zeintzuek bete ditzaketan, hein batean, aurreikusitako helburuak.

- Atzeman diren oinarrizko beharrak eta horiek konpontzeko modu operatiboa.

- Aurreikusitako ekintza berriak eta horiek gauzatzeko egutegia.

- Aurreikusitako ekimenen ondoriozko aurrekontu-behar berriak.

Iruñean, 2007ko urriaren 30ean

Eleduna: Roberto Jiménez Alli

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Donejakue Bideari buruzko kultur programaziorako hiru urteko plan bat egin dezan.

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko azaroaren 5ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkezturiko mozio hau: Nafarroako Gobernua premiatzen da Donejakue Bideari buruzko kultur programaziorako hiru urteko plan bat egin dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2007ko azaroaren 5ean

Jarduneko Lehendakaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

MOZIOAREN TESTUA

Roberto Jiménez Alli, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldearen eledunak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 195. artikuluan eta hurrengoetan xedatuaren babesean, honako mozioa aurkeztu du, Legebiltzarraren Osoko Bilkuran eztabaida eta onets dadin, Nafarroako Gobernua premiatzeko Donejakue Bideari buruzko kultur programaziorako hiru urteko plan bat egin dezan.

Zioen azalpena:

Donejakue Bidearen inguruko fenomenoak historikoki askotan agertu izan da Vianako Printzea Erakundearen programetan. Donejakue Bidearekin zerikusia duten monumentuen zaharberitzearen eta bestelako ekimenen ondotik, 1988tik aurrera, Donejakue Bidea babesteko, indartzeko

eta sustatzeko jarduketa-programa orokor bat egin zen. Programa hori, Nafarroan, zazpi arlotan gauzatu zen: Donejakue Bidearen lege-babesa, bidearen berreskuratze fisiko eta historikoa, Donejakue Bidearen inguruko fenomenoaren hedapenak, erromesentzako laguntza, ondare historikoaren babesa eta azpiegituren sorrera.

Denboran zehar eutsi zaie jarduketa horiei, gorabeheren eta joera politiko desberdinetako gobernuen gaitetik, eta, horrela, emaitzak egoki antzekoak izan dira. Donejakue Bidearen inguruko fenomenoak, zorionez, gora egin du azken urteotan, hala kuantitatiboki nola kualitatiboki. Gaur egun, erlijioarekin, artearekin eta kulturarekin zerikusia duen bide bat izateaz gain, turismo-jardun handia eragin du, eta horrek abantaila ekonomikoak ekarri dizkie Donejakue Bideko herriei eta, oro har, Nafarroa osoari.

Beste erkidego batzuek, uneotan, Donejakue Bidea beren erkidegoak kanpoan proiektatzeko elementu indartsua bihurtu dute, eta Donejakue Bidearen inguruko fenomenoaren abangoardian jarri dira. Hori ikusita, komeni da Nafarroak egunera ditzan bere programak, birformula ditzan abian diren helburuak eta proposa ditzan helmuga berriak, erromesen eta turisten eskari eta behar berriei bat.

Gainera, Donejakueren urte saindua dugu 2010ean eta horrek ere pizgarri behar luke Donejakue Bidearen inguruko jarduketa-plan orokor berri bat egiteko. Hori guztia dela eta, ondoko mozioa aurkeztu da, Legebiltzarreko Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozka dadin:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du hiru urteko jarduketa-plan orokor bat presta dezan lau hilabeteko epean (2008, 2009 eta 2010. urteetarako), eta bertan, Donejakue Bidea dela-eta, egunera ditzan abian dituen

programak, birformula ditzan helburuak eta beste batzuk proposa ditzan.

2. Donejakue Bideari buruzko 2008-2010 kultura planak ondoko zehaztapenak bederen bildu beharko ditu:

– Jarduera esparru zehatzen aipamena, eta horiek planifikatzeko eta abian jartzeko administraziozko organo arduradunaren zehaztapena.

– Esparru bakoitzeko ekintza zehatzak, eta bakoitzaren gutxi gorabeherako kostua.

– Ekintza garrantzitsuenak gauzatzeko kronograma.

– Aurreikusitako ekintzak egiteko aurrekontu beharrianak, kasua bada.

Iruñean, 2007ko urriaren 30ean

Eleduna: Roberto Jiménez Alli

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da berritutako osasun-txartel indibidualetan adieraz daitezkeen esleituriko mediku, erizain eta gizarte-langilearen izenak.

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-NAFARROAKO EZKER BATUA FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko azaroaren 5ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak aurkezturiko mozio hau: Nafarroako Gobernuak premiatzen da berritutako osasun-txartel indibidualetan adieraz daitezkeen esleituriko mediku, erizain eta gizarte-langilearen izenak.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osasun Batzordean eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2007ko azaroaren 5ean

Jarduneko Lehendakaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

MOZIOAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du Osasun Batzordean:

Zioen azalpena

Erizaintzako langileak aspalditik eskatzen ari dira osasun-txartel indibidualetan ager dadin txartelaren titularrak esleituta daukan erreferentziako erizainaren izena, familiako sendagilearen izena agertzen den bezala.

Gure ustez, osasun etxeko lana osasun arloko langile guztiek egiten dutena da, bai eta gizarte langileak egiten duena ere; hori dela eta, uste dugu horiek guztiak agertu beharko lirakeela osasun txartelean.

Gure iritziz, horrek ondokoa esan nahi du:

1.- Osasunaren arloan esku hartzen duen langile-talde osoaren lana ikusaraztea.

2.- Erabiltzaileari zerbitzua modu egokian ematea osasun etxean.

Hori dela-eta, ondoko erabaki proposamena aurkeztu dugu:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du osasun txartelak hurrena berritzen direnean esleitutako familia medikuaren izenaz gain, osasun etxeko erabiltzaileak esleituta dituen erizainarena eta gizarte-langilearena ere ager daitezkeen.

Iruñean, 2007ko urriaren 29an

Foru parlamentaria: Ana Figueras Castellano

F saila:
GALDERAK

Galdera, errepideetan eraldaketak egiteko proiektuetan Herri Lan, Garraio eta Komunikazio Departamentuak erabiltzen duen administrazio prozedurari buruzkoa.*JOSÉ M.ª VÁZQUEZ ROYO JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko azaroaren 5ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea José M.ª Vázquez Royo jaunak aurkeztutako galdera, errepideetan eraldaketak egiteko proiektuetan Herri Lan, Garraio eta Komunikazio Departamentuak erabiltzen duen administrazio prozedurari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2007ko azaroaren 5ean

Jarduneko Lehendakaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari José María Vázquez Royo jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 186. artikuluan eta hurrengoetan xedatuaren babesean, ondoko galdera hau aurkeztu du, Osoko Bilkuran ahoz erantzuteko.

Galderaren testua:

Zer administrazio-prozedura erabiltzen du Herri Lan, Garraio eta Komunikazio Departamentuak Nafarroako edozein udaletako errepideetan eraldaketak egiteko proiektuak aurrera eramateko, baldin eta aipaturiko proiektuek udal horietan eragina baldin badaukate?

Iruñean, 2007ko urriaren 30ean

Foru parlamentaria: José M.ª Vázquez Royo

Galdera, Gizarte Gaietako Departamentuak immigrazioaren arloan dauzkan eskumenei buruzkoa.*IOSEBA ECEOLAZA LATORRE JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko azaroaren 5ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ioseba Eceolaza Latorre jaunak aurkeztutako galdera, Gizarte Gaietako Departamentuak immigrazioaren arloan dauzkan eskumenei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2007ko azaroaren 5ean

Jarduneko Lehendakaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Ioseba Eceolaza Latorrek, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuko Gizarte Ongizate, Familia, Gazteria eta Kirol kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Departamentu horrek immigrazioaren arloan dituen eskumenei buruzko galdera.

Non hasten dira Gizarte Gaietako Departamentuaren immigrazio-arloko eta non bukatzen dira Erakunde Harremanetarako Departamentuarenak?

Iruñean, 2007ko urriaren 30ean

Foru parlamentaria: Ioseba Eceolaza Latorre

Galdera, zilbor-hesteko odolaren biltegitratzea Bartzelonako enpresa baten esku uzteko arrazoiei buruzkoa, kontuan hartuz Transfusioen Zentroak behar adinako ekipamendua duela.

ASUN FERNÁNDEZ DE GARAIALDE Y LAZKANO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko azaroaren 5ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Asun Fernández de Garaialde y Lazkano andreak aurkeztutako galdera, zilbor-hesteko odolaren biltegitratzea Bartzelonako enpresa baten esku uzteko arrazoiei buruzkoa, kontuan hartuz Transfusioen Zentroak behar adinako ekipamendua duela.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2007ko azaroaren 5ean

Jarduneko Lehendakaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Asun Fernández de Garaialde andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du Nafarroako Gobernuko Osasun kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Transfusioen Zentroak zilbor-hesteko odola biltegitratzeko behar adina dotazio, baliabide eta ahalmen edukita, zergatik arduratu behar du Bartzelonako enpresa batek zerbitzu hori emateaz? Zein da zerbitzu hori Bartzelonara bideratzearen kostu gehigarria?

Iruñean, 2007ko urriaren 30ean

Foru parlamentaria: Asun Fernández de Garaialde

Galdera, epe ertain eta luzean osasun gastua hobetzeko eta arrazoizkoagoa egiteko hartu diren edo hartuko diren neurriei buruzkoa.

ASUN FERNÁNDEZ DE GARAIALDE Y LAZKANO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko azaroaren 5ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Asun Fernández de Garaialde y Lazkano andreak aurkeztutako galdera, epe ertain eta luzean osasun gastua hobetzeko eta arrazoizkoagoa egiteko hartu diren edo hartuko diren neurriei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2007ko azaroaren 5ean

Jarduneko Lehendakaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Asun Fernández de Garaialde andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernuko Osasun kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

“Osasun Gastuari buruzko Lantaldearen” azken txostenean, Nafarroak zergatik ez du informaziorik eman epe ertain eta luzean osasun gastua hobetzeko eta arrazoizkoagoa egiteko hartu diren edo hartuko diren neurriei buruz?

Iruñean, 2007ko urriaren 30ean

Foru parlamentaria: Asun Fernández de Garaialde

Galdera, Mendabiako industrialdearen energia hornidurari buruzkoa.

MARÍA CHIVITE NAVASCUÉS ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko azaroaren 5ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Chivite Navascués andreak aurkeztutako galdera, Mendabiako industrialdearen energia hornidurari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2007ko azaroaren 5ean

Jarduneko Lehendakaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari María Chivite Navascués andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernuko Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu kontseilariak idatziz erantzun dezan:

Parlamentu-talde honi jakinarazi zaio arazoren bat dagoela Mendabiako industrialdearen energia-horniduraren egoera dela eta. Industrialde horretan, energia-hornidura dela eta, gabezia arazoak pairatzen ari dira, linea elektrikoak gainezka dardelako.

Egoera hori kezagarria da Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldearentzat,

nolabaiteko ziurgabetasuna eta eragozpenak sortzen baitizkie industrialde horretan dauden enpresei; hori horrela, egokia iruditzen zait honako galdera hau egitea, idatziz erantzun dadin:

Kontuan izanik aztergai dugun egoerak herri horretako hurrengo urteetako garapen industrial

gutziz eragotz dezakeela, zer aurreikuspen ditu departamentuak Mendabiako industrialdearen energia-hornidura dela-eta dagoen arazoari konponbidea emateko?

Iruñean, 2007ko urriaren 26an

Foru parlamentaria: María Chivite Navascués

Galdera, 2004-05, 2005-06, 2006-07 eta 2007-08 ikasturteetan Iruñean eta Iruñerrian izandako haur hezkuntzako aurrematrikulazioaren eta matrikulazioaren datuei buruzkoa.

MARÍA LUISA MANGADO CORTES ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko azaroaren 5ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Luisa Mangado Cortes andreak aurkeztutako galdera, 2004-05, 2005-06, 2006-07 eta 2007-08 ikasturteetan Iruñean eta Iruñerrian izandako haur hezkuntzako aurrematrikulazioaren eta matrikulazioaren datuei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 190. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2007ko azaroaren 5ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari María Luisa Mangado Cortesek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babese-

an, ondoko galdera aurkezten dio Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Departamentuari, idatziz erantzun dezan:

Haur hezkuntzako eskaintzaren eta eskariaren bilakaera aztertu ahal izateko, parlamentari honek haxe jakin nahi du:

Haur Hezkuntzako (3 urte) aurrematrikulazioari eta matrikulazioari buruzko datu estatistikoak, 2004/05, 2005/06, 2006/07 eta 2007/08 ikasturteei buruzkoak, Iruñekoak eta Iruñerrikoak eta Nafarroako gainerako lekuetakoak, honakoak zehaztuta: ikastetxearen titularitatea (ikastetxe publikoa ala itundua), hizkuntza eredia (A, B, D, G, I), eskaintako postu-kopurua eta aurrematrikulazioko eskariak (lehen aukera eta behin betiko matrikulazioa bereiziz).

Halaber, 2007/08 ikasturterako postuak eta aurrematrikulaziorako eta behin betiko matrikulaziorako eskariak, lehen aukerakoak, ezagutu nahi ditugu.

Iruñean, 2007ko urriaren 30ean

Foru parlamentaria: María Luisa Mangado Cortes

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

38/07 Ebazpena, urriaren 17koa, Nafarroako Foru Komunitateko arartekoak emana, erakunde horretan dauden datu pertsonalen fitxategiak arautzen dituen ekainaren 18ko 31/04 Ebazpena aldatzen duena.

Nafarroako arartekoak ekainaren 18an emandako 31/2004 Ebazpenaren bidez, erakunde horretan dauden datu pertsonalen fitxategi automatizatuak arautu ziren. Ebazpen hori 2004ko uztailaren 28an argitaratu zen, 90. Nafarroako Aldizkari Ofizialean.

Fitxategi horiek sortu zirenetik joan den denbora eta erakundearen antolaketan gertatu diren aldaketak ikusita, egoki litzateke datu pertsonalen fitxategi automatizatu horietako batzuen ezaugarriak aldatzea, baita fitxategi berri bat sortzea ere, kontabilitate-kudeaketari eta kudeaketa ekonomiko-finantzarioari lotutako datu pertsonalak tratatzeko.

Bestalde, eraginkortasuna eta sinplifikazioa helburu, ebazpen hau testu bategin gisa aurkezten da eta, beraz, bertan Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoaren Bulegoak kudeatzen dituen datu pertsonalen fitxategi automatizatu guztiak zerrendatu eta azaltzen dira.

Horrenbestez, Nafarroako Foru Komunitateko arartekoari buruzko uztailaren 3ko 4/2000 Foru Legeak ematen dizkidan ahalmenak erabiliz,

EBATZI DUT:

Lehena. Datu pertsonalak babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren lehenengo xedapen gehigarrian ezarritakoarekin bat, eta bertan ezarritako ondorioetarako, Nafarroako arartekoari buruzko ekainaren 18ko 31/2004 Ebazpena aldatzen da. Horrenbestez, honako hauek dira Nafarroako Foru Komunitateko arartekoaren kargura dauden datu pertsonalen fitxategiak:

- 16. Erregistro Orokorra.
- 17. Kexen Erregistroa.
- 18. Kontsulten Erregistroa.
- 19. Langileria Kudeaketako Erregistroa.

20. Kontabilitatearen eta Kudeaketa ekonomiko-finantzarioaren Erregistroa.

Bigarrena. Hona hemen datu pertsonalen fitxategi automatizatu horien ezaugarriak:

1. Fitxategiaren izena: ERREGISTRO OROKORRA.

a) Aurreikusitako xede eta erabilerak:

Erregistro Orokorren helburua agiriaren sarreak eta irteerak kontrolatzea da, barne-erabilerarako eta epeak kreditatzeari begira.

b) Ukitutako norbanakoak eta taldeak:

agiriak aurkeztu edo jasotzen dituzten pertsona fisiko edo juridikoak.

c) Datuak biltzeko prozedura:

Pertsona fisikoek edo juridikoek berek ematen dituzte datuak.

d) Fitxategiaren oinarritzko egitura eta bertan sartuko diren datu pertsonalak:

Identifikazio datuak:

NANa/IFZ/Pasaportea.

Izen-deiturak.

Helbidea.

Herria.

Posta kodea.

e) Datu pertsonalen lagapena:

ez da daturik lagako.

f) Fitxategiaren ardura duen unitate organikoa:

Hura zaintzea, lehenik eta behin, erregistroaren ardura duten langileei dagokie, kudeaketa teknikariaren eta Nafarroako Foru Komunitateko arartekoaren ikuskarpen zuzenaren pean.

g) Datuak eskuratu, zuzendu eta ezabatzeko eskubideaz baliatzeko nora jo:

Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoaren Bulegoa. Helbidea: Arrieta kalea, 12, behea, Iruña (31002 posta kodea). Telefono zenbakia: 948 203 571. Helbide elektronikoa: info@defensornavarra.com.

h) Segurtasun neurriak:

Oinarrizko maila.

2. Fitxategiaren izena: KEXEN ERREGISTROA.

a) Aurreikusitako xede eta erabilerak:

Kexen Erregistroaren helburua Nafarroako Foru Komunitateko arartekoari bidaltzen zaizkion kexen inguruko idazki guztiak kontrolatzea da, gero kexak kudeatzeko eta tramitazio epeak kontrolatzeko.

b) Ukitutako norbanakoak eta taldeak:

Nafarroako Foru Komunitateko arartekoari buruzko uztailaren 3ko 4/2000 Foru Legearen 21. artikuluan ezarritakoaren arabera kexa-idazkiak aurkezten dituzten pertsonak fisiko eta juridikoak eta, orobat, kexa-espeditenteen tramitazio eta exekuzioaldian diktatzen diren egintzek eta ebazpenek ukitutakoak.

c) Datuak biltzeko prozedura:

Pertsona fisikoek edo juridikoek berek ematen dituzte datuak.

d) Fitxategiaren oinarrizko egitura eta bertan sartuko diren datu pertsonalak:

Identifikazio datuak:

NANa/IFZ/Pasaporteak.

Izen-deiturak.

Helbidea.

Herria.

Posta kodea.

Telefonoa.

Ezaugarri pertsonalen gaineko datuak.

Adina.

Sexua.

Egoera zibila.

Ikasketen eta lanbideen gaineko datuak:

Ikasketak.

e) Datu pertsonalen lagapena:

Ez da daturik lagako.

f) Fitxategiaren ardura duen unitate organikoa:

Hura zaintzea, lehenik eta behin, erregistroaren ardura duten langileei dagokie, kudeaketa teknikariaren eta Nafarroako Foru Komunitateko arartekoaren ikuskapen zuzenaren pean.

g) Datuak eskuratu, zuzendu eta ezabatzeko eskubideaz baliatzeko nora jo:

Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoaren Bulegoa. Helbidea: Arrieta kalea, 12, behea, Iruña (31002 posta kodea). Telefono zenbakia: 948 203 571. Helbide elektronikoa: info@defensornavarra.com.

h) Segurtasun neurriak:

Oinarrizko maila.

3. Fitxategiaren izena: KONTSULTEN ERREGISTROA.

a) Aurreikusitako xede eta erabilerak:

Kontsulten Erregistroaren helburua da Nafarroako Foru Komunitateko arartekoari kontsultak helarazteko egiten diren telefono-dei, mezu elektronikoa, bisita eta idazki guztiak kontrolatzea.

b) Ukitutako norbanakoak eta taldeak:

Kontsultak egiten dituzten pertsona fisiko edo juridikoak.

c) Datuak biltzeko prozedura:

Pertsona fisikoek edo juridikoek berek ematen dituzte datuak.

d) Fitxategiaren oinarrizko egitura eta bertan sartuko diren datu pertsonalak:

Identifikazio datuak:

Izen-deiturak.

Helbidea.

Herria.

Posta kodea.

Telefonoa.

Ezaugarri pertsonalen gaineko datuak:

Adina.

Sexua.

Egoera zibila.

Ikasketen eta lanbideen gaineko datuak:

Ikasketak.

Lan egoera.

e) Datu pertsonalen lagapena:

Ez da daturik lagako.

f) Fitxategiaren ardura duen unitate organikoa:

Hura zaintzea, lehenik eta behin, jendeari arreta emateko ardura duten langileei dagokie, informazio bulegoaren arduradunaren eta Nafarroako Foru Komunitateko arartekoaren ikuskapen zuzenaren pean.

g) Datuak eskuratu, zuzendu eta ezabatzeko eskubideaz baliatzeko nora jo:

Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoaren Bulegoa. Helbidea: Arrieta kalea, 12, behea, Iruña (31002 posta kodea). Telefono zenbakia: 948 20 35 71. Helbide elektronikoa: info@defensornavarrara.com.

h) Segurtasun neurriak:

Oinarrizko maila.

4. Fitxategiaren izena: LANGILERIAREN KUDEAKETAKO ERREGISTROA.

a) Aurreikusitako xede eta erabilerak:

Langileriaren Kudeaketako Erregistroaren helburuak hauek dira: Nafarroako Foru Komunitateko arartekoaren plantilla organikoa kudeatzea, nominak prestatu eta kontrolatzea (eta horren barrenean dago egin beharreko alta, baja eta aldaketa guztiak egitea) eta erakundearen zerbitzuan dauden langileei ordaindu beharreko beste ordainketa eta sari batzuen kudeaketa.

b) Ukitutako norbanakoak eta taldeak:

Nafarroako Foru Komunitateko arartekoaren zerbitzuko langileak.

c) Datuak biltzeko prozedura:

Nafarroako Foru Komunitateko arartekoaren zerbitzuko langileak.

d) Fitxategiaren oinarrizko egitura eta bertan sartuko diren datu pertsonalak:

Identifikazio datuak:

NANa/IFZ.

Gizarte Segurantzaren zenbakia/Mutualitatea.

Izen-deiturak.

Helbidea.

Herria.

Posta kodea.

Telefonoa.

Ezaugarri pertsonalen gaineko datuak:

Egoera zibila.

Familia egoera.

Jaioteguna.

Sexua.

Nazionalitatea.

Enpleguari eta karrera administratiboari buruzko xehetasunak:

Kidegoa/eskala.

Kategoria/gradua.

Lanpostua.

Nominan agertzen diren datu ez-ekonomikoak:

Banku-kontuaren zenbakia.

Langilearen historiala.

e) Datu pertsonalen lagapena:

Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari buruzko datuak, urtero, Nafarroako Zerga Ogasunari lagako zaizkie eta, beharrezkoa den gutzietan, Nafarroako Gobernuko Eskubide Pasiboen eta Osasun Laguntzaren unitate organikoiei.

Era berean, Gizarte Segurantzari eta aurreikuspen sozialeko entitateei langileen alta eta bajei buruzko datuak lagako zaizkie, horrelakoak gertatzen direnean, eta hilabetero erakundeko langileen kotizazio oinarriak bidaliko zaizkie. Istripu edo eritasun kasuetan, behar diren datuak jakinaraziko zaizkie Gizarte Segurantzari.

Hilabetero, banku entitateei lagako zaizkie, langileen ordainsariak ordain ditzaten.

f) Fitxategiaren ardura duen unitate organikoa:

Hura zaintzea, lehenik eta behin, nominen kudeaketaren ardura duten langileei dagokie, kudeaketa teknikariaren eta Nafarroako Foru Komunitateko arartekoaren ikuskapen zuzenaren pean.

g) Datuak eskuratu, zuzendu eta ezabatzeko eskubideaz baliatzeko nora jo:

Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoaren Bulegoa. Helbidea: Arrieta kalea, 12, behea, Iruña (31002 posta kodea). Telefono zenbakia: 948 203 571. Helbide elektronikoa: info@defensornavarra.com.

h) Segurtasun neurriak:

Oinarrizko maila.

5. Fitxategiaren izena: KONTABILITATEAREN ETA KUDEAKETA EKONOMIKO-FINANTZARIOAREN ERREGISTROA.

a) Aurreikusitako xede eta erabilerak:

Kontabilitatearen eta Kudeaketa ekonomiko-finantzarioaren Erregistroaren helburua Nafarroako Foru Komunitateko arartekoaren jarduera ekonomiko-finantzarioaren ondoriozko agiriak, kontabilitateko egoera-orriak eta kontratazio espe-

dienteak tramitatu, kontrolatu eta haien segimendua egitea.

b) Ukitutako norbanakoak eta taldeak:

Erakundearekin harrreman profesionala duten pertsona fisiko edo juridikoak.

c) Datuak biltzeko prozedura:

Pertsona fisikoek edo juridikoek berek ematen dituzte datuak.

d) Fitxategiaren oinarritzko egitura eta bertan sartuko diren datu pertsonalak:

Identifikazio datuak:

NANa/IFZ.

Izen-deiturak edo sozietatearen izena.

Helbidea.

Herria.

Posta kodea.

Telefonoa.

Faxa.

Helbide elektronikoa.

Banku-kontuaren zenbakia.

e) Datu pertsonalen lagapena:

Urtero, Pertsona fisikoen errentaren gaineko Zergari buruzko datuak Nafarroako Zerga Ogasunari lagako zaizkio.

Eta beharrezkoa denean, banku-entitateei ere, transferentziak eta ordainketa aginduak gauzatzeko.

f) Fitxategiaren ardura duen unitate organikoa:

Hura zaintzea, lehenik eta behin, kontabilitatearen ardura duten langileei dagokie, kudeaketa teknikariaren eta Nafarroako Foru Komunitateko arartekoaren ikuskapen zuzenaren pean.

g) Datuak eskuratu, zuzendu eta ezabatzeko eskubideaz baliatzeko nora jo:

Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoaren Bulegoa. Helbidea: Arrieta kalea, 12, behea, Iruña (31002 posta kodea). Telefono zenbakia: 948 203 571. Helbide elektronikoa: info@defensornavarra.com.

h) Segurtasun neurriak:

Oinarritzko maila.

Hirugarrena. Nafarroako Foru Komunitateko arartekoak erakundean dauden datu pertsonalen fitxategi automatizatuen inguruan diktatzen dituen egintzen aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar daiteke Nafarroako Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salari zuzendua, egintza argitaratu eta biharamunetik hasita bi hilabeteko epean, deuesetan galarazi gabe, nahi izanez gero, berraztertze errekurtsoa jartzea, Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoari zuzendua, egintza jakinarazten denetik hilabeteko epean.

Laugarrena. Ebazpen hau kontu-hartzaileari, Datuak Babesteko Espainiako Agentziara, :bon.era eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialera igortzea, argitara dadin.

Iruñean, 2007ko urriaren 17an

Nafarroako arartekoa, Francisco Javier Enériz Olaechea

Nafarroako Foru Komunitateko arartekoaren azaroaren 8ko 42/07 Ebazpena, Nafarroako arartekoaren erakundearen zerbitzu karta onesten duena.

Nafarroako Foru Komunitateko arartekoa Nafarroako Parlamentuaren goi mandataria da, eta Konstituzioak eta Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoak babesturiko eskubideen eta libertateen alde egiteko eta horiek hobeki babesteko hautatu du Nafarroako Parlamentuak. Herritarrak Administrazioaren balizko abusu eta akatsen aurrean babestea du eginkizun nagusi.

Nafarroako arartekoak autonomiaz eta bere irizpidearen arabera betetzen ditu bere eginkizunak. Hala eta guztiz ere, horrek ez du oztopatzen, lagundu baizik, zerbitzu publikoen kalitatea balioztatzeke eta hobetzeko dauden teknika modernoetara jotzea erakundeak eta, bereziki, "zerbitzu kartak" izenekoetara. Izan ere, karta horiek dokumentu publikoak dira, edonork eskura izateko modukoak. Erakunde batek ematen dituen zerbitzu publikoen gaineko informazioa ematen dute, eta zerbitzu horiek hobeki emateko hartutako konpromisoak eta horiek beteko direla ziurtatzen duten adierazleak hartzen dituzte.

Horretan, politika publikoak eta zerbitzu publikoen kalitatea balioztatzeke abenduaren 29ko 21/2005 Foru Legeak bultzatutako joerari gehitzen zaio erakundea. Eta era berean areago armatzen da Nafarroako administrazio publikoei eta horien mendeko erakundeei foru lege hori bete dezaten hertsiki eskatu ahal izateko. Izan ere, legediak onartzen dizkien eskubide subjektibo publikoak egiazko zerbitzu eta zerbitzu eraginkor bihurtzeko pentsatua dago foru lege hori.

Nafarroako Foru Komunitateko arartekoaren uztailaren 3ko 4/2000 Foru Legeak ematen dizkidan eginkizunekin bat,

EBATZI DUT:

Lehena. "Nafarroako Foru Komunitateko arartekoaren zerbitzu karta" onartzea (erabaki honi atxikirik doa).

Bigarrena. Erabaki hau eta atxikitako zerbitzu karta Nafarroako Parlamentuaren Aldizkari Ofizialean eta erakundearen webgune ofizialean argitaratzeko agintzea, denek izan dezaten horien berri.

Iruña, 2007ko azaroaren 7an

Nafarroako Arartekoa: Francisco Javier Enériz Olaechea

Eranskina

Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoaren Zerbitzu Karta

I. KAPITULUA XEDAPEN NAGUSIAK

I. Helburuak

Erakunde honek ematen dituen zerbitzuen gaineko informazioa, zerbitzu-emate horretan hartzen diren kalitate konpromisoak eta, zerbitzu horiekin lotuta, herritarrek dituzten eskubideak hartzen ditu Nafarroako Foru Komunitateko arartekoaren zerbitzu kartak.

Nafarroako arartekoak gauzatu beharreko ekintzak gidatzen ditu kartak.

II. KAPITULUA ZERBITZUAK ETA ESKUBIDEAK

II. Zerbitzuen zerrenda

1. Erakundea arautzen duen foru legeak ezartzen dizkion eginkizunak betetzeko, Nafarroako arartekoak honako zerbitzu hauek ematen ditu:

- Erakundeari berezko zaizkion eginkizunen eta hori baliatzeko moduen gaineko informazioa ematea.
- Administrazio publikoekiko harremanetan, herritarrak dituen eskubideen alde egiteko eta horiek babesteko maila hobetzeko aurreikusita dauden jardueri buruzko informazioa eta aholkuak ematea herritarrei.
- Erakunde honen eskumenetik kanpo dauden aferak egoki bideratzeko informazioa eta aholkuak ematea herritarrei.
- Administrazio publikoekiko harremanetan herritarrek dituzten eskubideei buruzko informazioa ematea eta zabaltzea, eta, intimitatea izateko eskubidea erregulatzen duten arauak loturik, jarduerak, azterketak eta informazio materialak hedatzea.
- Edozein pertsonak edo erakundek kexatzeko aurkezten dituen idatziak hartzea.
- Kexen izapideak egitea eta horiek erabakitzea, edo, bere kasuan, kexa aurkeztu duen pertsonari edo erakundeari kexa horren izapideak

egitea eragozten duten arrazoiei buruzko informazioa ematea eta gidatzea.

- Herritarren eskubideak babesteko egintzak sustatzea eta bultzatzea.

- Nafarroako arartekoko eta beste erakunde eta entitate batzuetako langileei eskubide eta askatasun publikoak babesteko eta horien alde egiteko gaietan prestakuntza ematea.

2. Zerbitzu horiek, funtsean, honako baliabide hauen bidez ematen dira:

- Aurrez aurreko informazioa, arreta pertsonalizatuarekin.

- Telefono bidezko informazioa, doakoa.

- Informazio idatzia.

- Informazio telematikoa.

- Kexen eta eskaeren izapideak.

- Argitalpenak, liburuxkak eta informazio euskarriak kaleratzea eta banatzea.

- Jardunaldiak, kongresuak eta ikastaroak antolatzea.

- Laguntza eta lankidetzak hitzarmenak egitea.

III. Herritarren eskubideak

Nafarroako arartekoarekiko harremanetan, herritarrek honako eskubide hauek dituzte:

- Erakundearen jarduera nagusiaren gaineko informazio argia eta osoa izateko eskubidea.

- Beren eskubide subjektiboen alde egiteko eta horiek babesteko erakundeak egiten dituen jardueren gaineko informazio ulergarria eta laburra izateko eskubidea.

- Nafarroako Foru Komunitateko arartekoari ez dagozkion aferak nola bideratu jakiteko informazioa izateko eskubidea.

- Beren eskubide subjektibo publikoak urratu egin direla uste dutenean, kexak aurkezteko eskubidea.

- Kexa bat aurkezteak eskatzen dituen baldintzei buruzko aholkuak jasotzeko eskubidea.

- Nafarroako arartekoari igortzen zaizkion kexak edo beste idatzi batzuk idazteko beharrezkoa den laguntza izateko eskubidea.

- Kexatzeko egindako idatzia hartu izanaren adierazpena jasotzeko eskubidea.

- Kexen izapideak Nafarroako Foru Komunitateko arartekoa arautzen duen foru legeak xedatzen duenarekin bat bideratzeko eskubidea.

- Kexaren gaia den aferaren gainean hartutako berriarazko erabakia eta arrazoitua jakinarazteko eskubidea, edo, bere kasuan, kexa horren izapideak bideratzea eragozten duten arrazoien gaineko informazioa ematekoa.

- Kexaren izapideak zertan diren edozein unetan jakiteko eskubidea eta espedientean dauden dokumentuetako edukiaren berri izatekoa (isilpekoak ez badira, behinik behin).

- Erakundearen datu baseak, herritarrek begiratzeko modukoak direnak, kontsultatzeko eskubidea. Edonola ere, kexa aurkeztu duen pertsonaren isilpekotasuna bermatuko da, eta ikertutako egintzarekin, ez egitearekin, jokaerarekin edo zerbitzuekin loturarik ez duten partikularrei eta gainerako erakundeei buruzko zuhurtasun handiena gordeko da, ikerketak irauten duen bitartean.

- Errespetuz eta beren egoera pertsonalaren, sozialaren eta kulturalaren arabera tratatuak izateko eskubidea, eta Herritarrendako Laguntza Bulegora jotzen dutenean alde zuzeneko hitzordua eskatu behar izan gabe egin ahal izatea.

- Arreta egiten dien pertsona nor den jakiteko eskubidea. Horretarako, herritarrei arreta egiteko lanpostuetan aritzen diren pertsonak identifikatuko dira: beren izen-abizenak adieraziko dira.

- Interes nagusiko informazioa aurrez aurre, idatziz, telefonoz, ordenagailuz edo modu telematikoa jasotzeko eskubidea.

- Informazioa azkar eta modu eraginkorrean eskatzeko eta jasotzeko eskubidea.

- Ezar daitekeen araudiarekin bat, beren datu pertsonalak babesteko eskubidea.

- Bai idatzizko eta bai ahozko komunikazioetan herritar guztiek ulertzeko moduko hizkuntza erraza eta ulergarria erabiltzeko eskubidea.

- Egiten zaizkien komunikazioak guztiz eta behar bezala ulertu ahal izateko beharrezkoak diren argibide guztiak eskatzeko eta jasotzeko eskubidea.

- Erakundera idatziz jotzeko euskara baliatzeko eta erantzuna hizkuntza horretan jasotzeko eskubidea; alde batera utzirik kexa eremu mistotik eta eremu ez euskaldunetik datorrenean gaztelania erabiltzea erantzunean.

- Erakundeak horretarako gaitua duen pertsonari euskaraz hitz egiteko eta horrek hizkuntza horretan erantzuteko eskubidea, betiere kontuan harturik pertsona horrek bulegoan egon behar duela.

- Edonolakoa izanik ere beren ahalmen urritasuna, pertsona guztiak karta honetan onartutako eskubideak osorik erabili ahal izateko, baliabideak egokitzeko eta beharrezkoak diren neurriak hartzeko eskubidea.

- Beren kexak amaitutzat emateko mementoan, erakundearen funtzionamenduari eta eraginkortasunari buruzko iritzia izena eman gabe emateko eskubidea.

- Erakundearen funtzionamenduaren gaineko erreklamazioak eta iradokizunak egiteko eskubidea.

IV. Erakundeari laguntzeko eta horretan parte hartzeko moduak

Erakundearen zerbitzuak hobetzen laguntzeko eta horretan parte hartzeko, herritarrek honako baliabide hauek izango dituzte:

- Informazio Bulegora jo ondoren edo dagokien aferaren gainean Nafarroako Foru Komunitateko arartekoak hartu duen erabakia jaso eta gero eskuratutako inkestetan, edo erakundearen webgunearen bidez eskuratutakoetan, beren iritzia adieraztea.

- Zerbitzu karta honetan aurreikusitakoaren arabera, erreklamazioak, iradokizunak eta ekimenak adieraztea.

- Nafarroako arartekoaren webgunearen barnean, Erreklamazioen eta iradokizunen postontzian elektronikoki idatziak egitea.

- Erakunde honen webgunearan ageri diren eztabaida guneetan eta iritzia emateko inkestetan parte hartzea.

- Nafarroako Foru Komunitateko arartekoak beste erakunde batzuekin, gizarte ekimenekin, korporazio entitateekin eta herritarrek parte hartzeko beste modu batzuekin lankidetzan aritzeko dituen bideak baliatzea.

III. KAPITULUA

KALITATEARI DAGOKION KONPROMISOAK

V. Eskainitako kalitate mailak

Nafarroako arartekoak emandako zerbitzuen zerrenda eta karta honetan bildutako eskubideak honako kalitate konpromiso hauen arabera eman eta onartuko dira:

1. Kexak bideratzeko izapideei dagokienez:

- Erakundera iritsi denetik aurrera zenbatuta, gehienez ere, zazpi eguneko epean bidaliko da kexa hartu izanaren adierazpena.

- Jaso denetik aurrera zenbatuta, gehienez ere, hogeitaz eguneko epean erabakiko da kexa horren gaineko izapideak egingo diren edo ez.

- Kexaren espedienteari dagokion erabakia, gehienez ere, ikerketako zuzemenak amaitu eta hilabeteko epean hartuko da. Ikerketaren zuzementzat hartuko dira administrazio publiko batek edo interesdunak berak erantzutea eskatzen dutenak.

- Lehenago aipatutako epe horietan erantzun formalak ematea eragozten duten salbuespenezko egoeretan, interesdunari horren berri emango zaio eta modu ulergarrian azalduko zaizkio atzerapen hori eragin eta justifikatu duten arrazoiak.

2. Kontsulta idatziei eta eskaerei dagokienez:

- Aurkeztu diren egunetik aurrera zenbatuta, gehienez ere, hamar eguneko epean erantzun zuzena emango da.

- Epe horretan idatziz erantzutea ezinezkoa bada arrazoiren batengatik, herritarrei modu egokian jakinarazi eta azalduko zaizkio atzerapen hori justifikatzen duten arrazoiak.

3. Aurrez aurreko informazioa honako baldintza hauetan emango da:

- Erakundearen egoitzan, orokorki, eta hurrengo puntuan ezarritakoa alde batera utzirik, ordutegia honako hau izango da: astelehena eta osteguna bitartean, 08:30-14:30 eta 16:00-18:00, eta ostiraletan, 08:30-14:30.

- Ekainaren 16a eta irailaren 15a artean (biak barne), herritarrek hartzeko udako ordutegia hau izango da: 08:30-14:30.

- Kontsulta landu duten langileek ondoren jardutea eskatzen duen informazioa gero emango da, idatziz, telefonoz edo modu telematikoa, eta ahalik eta azkarrena.

4. Telefono bidezko informazioa honako baldintza hauetan emango da:

- Telefono bidez arreta egitea eta informazioa ematea dagokien unitateek lineen erabilgarritasunaren arabera erantzun zuzena emango da.

- Telefono deiak, orokorki, eta hurrengo puntuan ezarritakoa alde batera utzirik, honako ordutegi honetan erantzun zuzena emango da: astelehena eta osteguna bitartean, 08:30-14:30 eta 16:00-18:00, eta ostiraletan, 08:30-14:30.

- Ekainaren 16a eta irailaren 15a artean (biak barne), herritarrek hartzeko udako ordutegia hau izango da: 08:30-14:30.

- Behin bulegoa itxi denean, erantzungailu bat egongo da martxan. Erantzungailu horretan, bai mezuak eta bai hurrengo lanegunean bulegoko langileek eskaerari erantzun ahal izateko harremanetan jartzeko moduak ere grabaturik utzi ahal izango dituzte.

- Nolanahi ere, luzaroan zain egon behar izatea saihestuko da.

- Herritarrek eskatu duen informazioa ezin bazaio une horretan bertan eman beste nolabaiteko jarduera eskatzen duelako, geroago emango zaio. Horretarako, edo bulegoko langileek telefonoz deituko diote, edo, eskatzaileari horrela jakinarazi bazaio, idatziz edo modu telematikoa igorriko zaio.

5. Informazio telematikoa honako baldintza hauetan emango da:

- Interneteko zerbitzuak eguneko 24 orduetan eta urteko egun guztietan funtzionatuko du.

- Modu honetan egindako informazio kontsultak eta eskaerak, gehienez ere, hamar eguneko epean egingo dira.

- Dena den, interesdunaren ordenagailura mezua irakurri dela adierazten duen mezu automatikoa bidaliko da. Horretarako jakinarazpen gisa baliatuko du mezu hori Nafarroako arartekoaren bulegoak.

- Modu honetara ezin bazaio erantzun informazio eskaerari, eskatzailearentzat egokiena eta azkarrena den moduan egingo da.

- Horretarako hitzarmena izenpetzen duten erakundeekin eta pertsonekin, bideo konferentzia bidez egingo da.

6. Dokumentazio eta hedatze jarduerari dagokionez:

- Dokumentazio zerbitzuan interesa duten erabiltzaileei arreta pertsonalizatua eta aholkuak emango zaizkie.

- Jaso den egunetik aurrera zenbatuta, gehienez ere, astebeteko epean erantzungo zaie argitalpenei buruzko eskaerei.

- Argitalpenak dohainik igorriko zaizkie erakundeek, irabazteko asmorik ez duten erakundeek, argitalpenen hartzaileen datu basean ageri diren pertsonen edo eskatzen dutenei, baldin eta argitalpen horien alerik badago.

- Liburuxkak eta dibulgazio materialak dohainik emango zaizkie erakundeek eta eskatzen duten pertsonen, baldin eta argitalpen horien alerik badago.

- Dokumentazio unitatean eta liburutegian dokumentu funtsak eta datu baseak kontsultatzeko aukera dago, baldin eta funts eta datu base horiek herritarrek kontsultatzekoak badira.

- Erakundearen argitalpen, liburuxka eta dibulgazio material guztiak kontsultatzeko aukera Nafarroako arartekoaren webgunean bertan. Kontsultatu eta horien kopia egin ahal izango da.

- Herritarrek kontsultatu ahal dituzten datu baseetan dagoen informazioa etengabe berrituko da informazio iturria jaso den dataren eta eragiten dion informazio bolumenaren arabera. Kasu horietan, dagokien datu baseek berariaz adieraziko dute horiek aldatzeko aurreikusita dauden epeak eta azken aldaketak zein datatan egin diren.

- Dokumentuak Internet bidez eskatzeko aukera dago.

7. Prestakuntza jarduerari dagokionez:

- Erakundeek langileek prestakuntza hartzeko eskubidea dute. Gutxienez, urtean bi ikastaro egin ahal izango dituzte, eta, erakundeak dituen premien arabera, ikastaro gehiago egiteko baimena eman ahal izango da.

- Beka duten ikasleei edo erakunde honetan praktikak egiten ari direnei tutoretza pertsonalizatua eta aholkularitza espezializatua emango zaie.

8. Laguntza eta lankidetzak jarduerari dagokionez:

- Erakunde honek izenpetzen dituen laguntza eta lankidetzak hitzarmenak Nafarroako arartekoaren webgunean emango dira argitaratu.

9. Nafarroako arartekoaren gai zerrendari eta erakunde jarduerari dagokionez.

- Erakundearen buruak egiten dituen erakunde jarduera nagusiak Nafarroako arartekoaren webgunean kaleratuko dira.

10. Herritarren eskaerei dagokionez.

- Nafarroako arartekoa dela eta, herritarrek dituzten premiak eta itxaropenak zein diren identifikatuko ditu.

VI. Kalitatea ziurtatzeko sistemak

Hitzartutako kalitate maila horiek ziurtatzeko, Nafarroako arartekoak honako tresna hauek izango ditu:

- Espedienteak modu automatikoa kudeatzeko eta bideratzeko, eta dokumentuak erregistratzeko sistema informatikoa. Datu pertsonalei dagokionez, legez babesteko eskatzen diren mailak bete beharko ditu sistema horrek.

- Datu baseak. Aldian behin berrikusiko dira, horietan ageri den informazioa eguneratua izateko.

- Hartutako zerbitzuen kalitatea dela eta, aski-etsirik ote dauden eta zer-nolako iritzia duten jakiteko, erabiltzaileen artean egiteko inkestak.

- Lan arriskuei aurrea hartzeko sistema eta aurrea hartzeko planak egitea.

- Zerbitzuen kalitatea balioztatzea. Hain zuzen ere, balioztatze horrek honako adierazle nagusi hauek izango ditu: dagokien pertsonak gogobeteta ote dauden neurtzekoak, kudeaketa profesionalizatua izan den neurtzekoak, etengabeko prestakuntza eta prozesuak guztiz hobetzea neurtzekoak, eta pertsona guztiak heldu ahal izateko baldintzak hobetzea neurtzekoak.

- Erakundearen funtzionamenduaren gaineko eraginkortasun ikuskatzeak.

VII. Kalitate adierazleak

Nafarroako arartekoak karta honetan hartutako konpromisoetan lortutako maila egiaztatzeko asmoz, erakunde honek emandako zerbitzuen kalitate eta eraginkortasun mailaren adierazle hauek ezarri dira:

1. Denbora adierazleak.

- Hartu izanaren adierazpenak igortzeko batez besteko denbora.

- Izapideak egiteko onartu diren kexen batez besteko denbora.

- Kexa amaitu arte behar den batez besteko denbora.

- Kontsulta idatziei erantzuteko batez besteko denbora.

- Erreklamazioei eta iradokizunei erantzuteko batez besteko denbora.

1. Zenbakizko adierazleak.

A) Aurkezpena.

- Aurkeztutako kexen kopurua.
- Euskaraz aurkeztutako kexen kopurua.
- Posta arruntaren bidez igorritako kexen kopurua.
- Internet bidez aurkeztutako kexen kopurua.
- Bulegoan bertan norberak aurkeztutako kexen kopurua.
- Faxez aurkeztutako kexen kopurua.

B) Izapideak.

- Onartutako kexen kopurua.

- Bideratzeko onartu ez diren kexen kopurua.

- Bideratzen ari diren kexen kopurua (aurkeztuak eta amaitutzat emateko zain daudenak).

- Gorte Nagusietako arartekoari igorritako kexen kopurua.

- Autonomia erkidegoetako parlamentuetako goi mandatariei bidalitako kexen kopurua.

C) Amaitutzat ematea.

- Ezezkoa emandako kexak.

- Aintzat hartutako kexak, erabakiren bat dutenak.

- Aintzat hartutako kexak, erabakirik ez dutenak.

D) Erabakiak.

- Emandako erabakien kopurua.

- Gomendioak, iradokizunak edo legezko bete-beharren gogorazpenak dituzten erabakien kopurua.

- Administrazioak erantzundako eta onartutako erabakien kopurua.

- Administrazioak erantzundako eta ez onartutako erabakien kopurua.

- Administrazioaren erantzunaren zain dauden erabakien kopurua.

- Onartutako erabakien kopurua, ondoren erabaki hori bete ote den egiaztatu den kasuak.

E) Kontsultak eta hizketaldiak.

- Interesdunek Nafarroako arartekoarekin eta aholkulariekin izandako hizketaldien kopurua.

- Arreta egindako kontsulta pertsonalen kopurua.

- Arreta egindako kontsulta idatzien kopurua.

- Arreta egindako telefono kontsulthen kopurua.

- Arreta egindako Interneteko kontsulthen kopurua.

- Interneteko webgunera sartutako pertsonen kopurua.

F) Txostenak.

- Nafarroako Parlamentuari aurkeztutako txosten berezien kopurua.

- Txosten berezietan egindako iradokizunen kopurua.

- Urteko txostena Nafarroako Parlamentuari aurkezteko data.

G) Beste jarduera batzuk.

- Bere kasa edo beste erakunde batzuekin lan-kidetzan antolatutako jardunaldi, kongresu eta ikastaro kopurua.

3. Erabiltzaileen gogobetetze mailari dagozkion adierazleak.

- Erabiltzaileak gogobeterik ote dauden balioztatzea.

4. Kexekin lotuta erakundeak duen eraginkortasun mailari dagozkion adierazlea.

- Administrazioak onartutako kexen kopurua arartekoak aintzat hartutako kexen kopuruaren proportzioan (arrazoia duen herritarraren eta onartzen duen administrazioaren artean arartekoak duen bitarteko rola zehaztea).

IV. KAPITULUA

ERREKLAMAZIOAK ETA IRADOKIZUNAK

VIII. Erreklamazioak eta iradokizunak.

Nafarroako arartekoak emandako zerbitzuen funtzionamenduaren gainean erreklamazioak eta iradokizunak egiteko herritarrek duten eskubidea onartzen du karta honek.

IX. Erreklamazioak eta iradokizunak erregistratzea

1. Nafarroako arartekoaren Erreklamazio eta Iradokizun Erregistroaren helburua erakunde honek ematen dituen zerbitzuen funtzionamendua dela eta herritarrek egoki jotzen dituzten erreklamazioak, iradokizunak eta ekimenak idatziz jasotzea da.

2. Nafarroako arartekoaren webgunean erreklamazioak, iradokizunak eta ekimenak adieraztea errazteko, Erreklamazioen eta iradokizunen postontzia jarriko da. Erraz identifikatzeko modukoa izango da. Gainera, erakundearen bulegoan egiazko postontzi bat egongo da erreklamazioak eta iradokizunak bertan sartu ahal izateko.

X. Erreklamazioak

1. Erakunde honen zerbitzuen funtzionamenduari lotutako arretarik eza, atzerapena edo beste edozein irregulartasuna dela eta, edonork aurkeztu ahal izango du erreklamazioa. Idatziz eta sinaturik aurkeztu beharko da, edozein formatutan edo euskarritan. Igorlearen identifikazio datuak eta harremanetan jarri ahal izateko helbidea idatzi beharko dira.

2. Kasuak hala eskatzen badu, erakundeko langileek erreklamazioa idazten lagunduko dute. Hori horrela egiten bada, nahi izanez gero, erreklamazioak sinatu besterik ez du egin beharko, ados dagoela adierazteko.

3. Behin erreklamazioa jasota, dagokion erregistroan jasoko da. Erreklamazioari hori egin dela adieraziko zaio, eta azkar erantzutea eta dagokien zerbitzuetako erantzukizun nagusia onartzen duten organoek horren berri izatea bermatuko duten egintzak hasiko dira.

4. Helburu horietarako, erantzukizuna dagokion erakunde honetako organoak egokiak diren jarduerak egingo ditu eta, beharrezkoa izanez gero, beharrezkoak diren azalpenak eskatuko dira. Bere kasuan, bidezko neurriak hartuko ditu edo dagokion nagusiari har ditzala proposatuko dio.

5. Erreklamazioa aurkeztu denetik aurrera zenbatuta, gehienez ere, hogeita hamar eguneko epean –dagokion erabiltzaileari edo beste batzuei azalpenak emateko eskatu ez bazaie– jakinaraziko zaizkio erreklamazioari egindako jarduerak eta, bere kasuan, hartutako neurriak.

XI. Iradokizunak

1. Erakunde honen funtzionamenduari lotutako iradokizunak eta ekimenak adierazi ahal izango dituzte herritarrek. Edozein bide edo euskarri idatzi baliatu ahal izango dute, eta betiere igortzen duen pertsonaren identifikazio datuak idatzi beharko dituzte.

2. Kasuak hala eskatzen badu, erakundeko langileek iradokizuna edo ekimena idazten lagunduko dute. Hori horrela egiten bada, nahi izanez gero, iradokitzen duen pertsonak sinatu besterik ez du egin beharko, ados dagoela adierazteko.

3. Behin iradokizuna edo ekimena jaso denean, dagokion erregistroan jasoko da. Igorleari hori egin dela jakinaraziko zaio, eta, dagokion organoaren bidez izapideak bideratuko dira. Izan ere, dagokien organoek berehala azter dezaten eta horri buruzko erabakia har dezaten lortu nahi da.

4. Iradokizuna edo ekimena aurkeztu denetik aurrera zenbatuta, gehienez ere, hogeita hamar eguneko epean –beste jarduerarik egin behar ez bada edo azalpenik eskatu behar ez bada– erakundeak gai horretan duen iritzia edo jarrera bidaliko dio igorleari.

V. KAPITULUA JARRAIPENA ETA ALDAKETA

XII. Kartari jarraipena egitea

Nafarroako Foru Komunitateko arartekoak izendatzen dituen langileak arduratuko dira karta honetan aldarrikatutako konpromisoak betearazteaz. Horretarako, honako hauek egitea egokituko zaie:

- Kartan onartzen diren konpromisoak eraginkorrak izan daitezen beharrezkoak diren jarduerak eta neurriak gauzatzea.

- Herritarrei eta erabiltzaileei zerbitzu eta arreta hobea eman ahal izateko beharrezkoak diren hobekuntza egintzak bultzatzea.

- Erreklamazioen eta Iradokizunen Erregistroa egokitzea eta horri eustea.

- Datu eta informazio baseak eguneratuta eta berrikusita izatea bultzatzea.

- Erabiltzaileek inkestak egitea eta parte hartzea sustatzea.

- Nafarroako arartekoaren ordezkari gisa, adierazten diren erreklamazioei, iradokizunei eta ekimenei erantzutea.

XIII. Karta aldatzea

Karta aldatu ahal izateko, Nafarroako Foru Komunitateko arartekoak horren gaineko erabakia eman beharko du.

Erakundearen webgunean beti agertuko da zerbitzu kartaren azken bertsio eguneratua eta eraberritua.

VI. KAPITULUA

INFORMAZIO OSAGARRIA ETA PUBLIZITATEA

XIV. Posta helbideak, telefono zenbakiak eta helbide telematikoak

Karta honetan Nafarroako arartekoak azaltzen dituen zerbitzuak hartu ahal izateko, herritarrek honako helbide hauetara jo dezakete:

- Bulegoa: Emilio Arrieta kalea, 12, behea. 31002 Iruña

- Telefono bidezko informazioa, doakoa: 900 702 900

- Fax zenbakia: 948 20 35 49

- Interneteko helbidea: www.defensornavarra.com

- Helbide elektronikoa: info@defensornavarra.com

- Erreklamazioen eta iradokizunen postontzia. Bada bat bulegoan bertan –erreklamazioak eta iradokizunak idatziz edo telefonoz aurkeztu ahal dira- eta beste bat Interneteko webgunean.

XV. Karta jendaurrean ezagutaraztea

Nafarroako arartekoak beharrezkoak diren neurriak hartuko ditu karta honek ahalik eta publizitate handiena duela bermatzeko. Izan ere, dokumentu hau hartzen duen liburuxka bat emango da argitara eta erakundearen webgunean kaleratuko da: <http://www.defensornavarra.com>

44/07 Ebazpena, azaroaren 9koa, Nafarroako Foru Komunitateko arartekoarena, Pilar Álvarez Asiáin andrea erakundeko idazkari nagusi izendatzen duena.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2005eko azaroaren 23ko erabakiaz, Nafarroako Foru Komunitateko arartekoaren antolakuntzari eta funtzionamenduari buruzko Erregelamendua onetsi zuen. Erregelamendu horren 7.1.f) eta 25. artikuluetan xedatuaren indarrez,

EBATZI DUT

Lehena Pilar Álvarez Asiáin andrea Nafarroako Foru Komunitateko arartekoaren erakundeko idazkari nagusi izendatzea.

Bigarrena. Ebazpen hau interesdunari igortzea eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2007ko azaroaren 9an

Nafarroako arartekoa: Francisco Javier Enériz Olaechea



NAFARROAKO PARLAMENTUKO
ALDIZKARI OFIZIALA

HARPIDETZA
ORRIA

Izen-deiturak

Helbidea

Telefonia *Hiria*

P. K. *Probintzia*

Ordaintzeko:

Dirua Nafarroako Kutxako 2054/0000 41 110007133.9 zenbakiko kontu korrontera igorri edo bertan sartu.

HARPIDETZAREN PREZIOA ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA	IDAZKARITZA ETA ADMINISTRAZIOA NAFARROAKO PARLAMENTUA «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Navas de Tolosa, 1 31002 IRUÑA
Urtebete 45,15 euro	
Aldizkari Ofizialaren prezioa, aleko 1,18 »	
Bilkura Egunkariaren prezioa, aleko 1,34 »	